



# ttipi-ttapa

TOKIKOM

2013ko urtarrilaren 3a | XXXIII. urtea | 581. zenbakia

www.ttipi.net



Esther PASCAL

Zilarrezko titarea  
Doneztebeko  
jostunarentzat → 18

**Kirol izendegia**  
2012ko kirolari gailenak → 36

**ARANTZA → 14**  
Mendi Mutilen besta  
eginen dute igandean

**MALERREKA → 22**  
Bi aizkora apusturako  
hitzorduak martxoan

**GOIZUETA → 26**  
Hamaikagarren txapela  
jantzi du Aimar Olaizolak

**BAZTAN → 29**  
Herrietako alkate  
gehienak aukeratuak

Jon JAUNARENA | Leitzako pilotaria



→ 49

ELKARRIZKETA → 3

## Hiru txapel jokoan eta hirurak lortu ditu

Urte bakarrean promozio mailako  
hiru txapelak lortu dituen lehenengo  
pilotaria da Jon Jaunarena.

ARGAZKIA: E. IRAOLA



ERREPORTAJEA → 4-5

Urtarrilean edo  
otsailean omenal-  
dia eskainiko die  
Berako Udalak  
Frankismoaren  
biktimei.



MUGALARREAK → 11

Akita sinatu  
zuten artzainak  
omendu dituzte  
Lizuniagan

OMENALDIA → 30

25 urtez herriko  
alkate izan zen  
Jexux Agerre  
gogoan dute  
Zugarramurdi eta  
ekitaldia eta  
bazkaria prestatu  
dute hilaren 12an.

ZOZKETAK → 44



Txartela egiteko  
deitu 948 63 54 58  
telefonora

## BERAKO AGENDA



## urtarrila

5

larunbata

## ERREGE KABALGATA

15:30 · Erregeen pajeak herriko karrketan barna ibiliko dira gutunak biltzen  
18:30 · Errege Kabalgata (Ibilbidea: Itzea auzotik Eztegara pilotalekura)

12

larunbata

## MENDI EGUNA

10:30-13:00 · Haurrentzako eskalada (+ 6 urte) · Ibardinen · Irteera kiroldegitik 10:00etan  
14:00-15:00 · Dorsal banaketa | 14:30 · Irteera oinez  
14:45 · Haurrentzako lasterketa | 15:30 · Helduen lehenengo irteera  
18:30 · Parte-hartzaileentzako berendua  
19:00 · Proiekzio bat. Bidaiatu eta eskaladari buruz

12

larunbata

## "Begiak lekuko" EMANALDI AKUSTIKOA (Mugaldekoak)

20:30 · Kultur etxean  
Argibide gehiago: [www.mugaldekoak.com](http://www.mugaldekoak.com)

18

ortzira

## BERTSOTRAMA: BERTSOLARIAK: Jon Maia

Onintza Enbeita · Julen Zelaieta · Xabier Silveira

TRAMAGILEAK: Garaxi Taberna eta Patxi Castillo

GAIA: " Irausiazu bidia, Xabier" · 22:00 · Kultur Etxean  
Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea

22

asteartea

## HITZALDIA: "Nola egin konpost"

18:30 · Beralandetan

25

ortzira

KONTZERTUA:  
Joseba Irazoki  
& Lagunak22:00 · Kultur Etxean  
Sarrera: 6€

25

ortzira

HAURRENTZAKO  
IPUIN KONTALARIA  
(Ixabel Millet)

## "Galtzagorriak dantzan"

3-5 urte bitartekoentzat  
18:00 · Herri Liburutegian  
Argibide gehiago: [www.ixabel.com](http://www.ixabel.com)MUSIKA ESKOLAKO  
EMANALDIK

22

asteartea

## HAIZE EMANALDIA

17:30 · Musika eskolan

PERKUSIO  
EMANALDIA

18:00 · Musika eskolan

23

asteazkena

29

asteartea

## GITARRA EMANALDIA

17:30 · Musika eskolan

TXISTU  
EMANALDIA

18:30 · Musika eskolan

30

asteazkena

Ekitaldien gaineko informazio  
gehiago: 012 telefonoan  
edo [www.berakoudala.net](http://www.berakoudala.net)C.A.P.  
ZENTROA

HOMOLOGATUA

HASIERAKOA-JARRAIA

MERCANTZIAK

BIDAIAIRIAK



## TRANSPORTISTA

TITULUA lortzeko

11. Ikastaroa hasiko dugu

Araudia aldatu baino lehen  
azken aukera izanen duzu.  
APROBETXATU!

Azterketa: MAIATZA bukaeran

Ikastaro intentsiboak:

- Asteburuetan 8 orduz
- Astegunez egunero 3 orduz

Klaseetara joanez gero,  
aprobatu kopuru handia

T. 680 11 06 51 (Migeltxo) · 948 26 13 15 (CAP zentroa)

Hiru txapela jokoan eta hirurak lortu ditu Jon Jaunarenak. 20 urte ditu eta profesional mailan bi urte nahikoak izan ditu historiaren parte bihurtzeko. Urte bakarrean promozio mailako

hiru txapelak lortu dituen lehenengo pilotaria baita. Eskuratu duen azkena lau t'erdikoa izan da. Abenduaren 8an Untoriaren aurka partida estua jokatu eta 22-20 irabazi zion. Aurtengo

lorpenarekin, lehen mailan jokatzeko eskubidea lortu du. Ilusioz hartu du erronka berria, baina oinak lurtean ditu, gogor lan egiten jarraitu beharko duela argi du.

Jon JAUNARENA | Leitzako pilotaria

# «Hogei urterekin egin dudana lortzea ez nuen inondik inora espero»

## E. IRAOLA

### Hiru txapelak soinean. Nola sentitzen zara?

Gauza polita da hiru txapela jokoan egon eta hirurak irabaztea. Ez da askotan errepikatuko. Hogei urterekin egin dudana lortzea, ez nuen inondik inora espero. Historia egin dudala entzutea polita da baina, kantxara irten nintzanean lau t'erdiko finala, partida hori, irabaztera irten nintzen ni. Ez inongo errekorrik egitera.

### Nola joan zen finala?

Untoria aurkari oso gogorra izan zen. Hasieran nik uste ongi hasi nintzela, baina gero bera ere gehiago jokatzen hasi zen. Nik huts batzuk, agian gehitxo, egin nituen erdialdean. 14na gindoazenean hobekixeago jokatzen hasi nintzen, hiru tanto ongi bukatu nituen. Nire momentu hoberena agian hori izan zen, 17-14ra bitartekoa. Baina Untoriak tantoak eginez eta tantoak gogoreutsiz jarraitu zuen. 21 eta 17 aurretik jarri nintzen, baina ez nuen amaitzea lortu. Orduan berak sakea hartu eta 20 tantora arte hurbildu zen. Baina azkenean, sakea berreskuratu eta partidugogor baten ondoren irabaztea lortu nuen.

**Garaipena arriskuan ikusi zenuen?**  
Askotan ikusten duzu



ENERITZ IRAOLA

Jon Jaunarena, urte bakarrean 2. mailako hiru txapelak jantzi dituen lehen pilotaria da.

txapela arriskuan. Untoria kontuan izan beharreko pilotaria da, tantoak luzatu ezker, erakutsi du oso gogorra dela eta berari tanto egitea asko kostatzen dela. Pilotakada askoko partida izan zen. Irabazi nuen, baina berdin berdin galdu nezakeen. 21 eta 20koa nire azken pelotazoa txapa pean izan balitz eta berak sakea eskuratu, agian ez ginateteke horrela hizketan arituko.

### Hiru finaletatik zaile-na zein izan da?

Markagailu estuena azken finalean egon da. Buruz burukoan ere Ezkurdiaren aurka asko

## URTE BERRIARI

«Aurtengo urtea bezalakoa balitz niretzat aski izanen zen. Baina badakit ez dela erraza. Horregatik, partida asko jokatu eta irabaztea da nire helburua»

## HELBURUA

«Ez dut uste pentsatu behar dudarik bigarren mailako txapela irabazi dudalako, orain lehenengo mailako partidak irabazi behar ditudala. Gauzak ahal dudan hobekien egite- ra irten behar dut kantxara.»

sufritu nuen, partida oso gogorra izan zen. Nire ustez, azkeneko biak izan dira gogorrenak, biak maila berean.

### Txapela lortzeak zer dakar?

Lorpen pertsonalaz gain, lehenengo mailan jokatzeko aukera lortzen da. Lehenengo mailako lau t'erdiko eta buruz burukoan jokatzeko txartela da.

### Horrek errespetua ematen dizu?

Errespetua baino gehiago ilusio handia. Badakit, lehenengo mailan gehienak ni baino hobek direla. Ahal den presio gutxienarekin joan beharko nukeela us-

te dut. Joko on bat egin behar dut. Ez dut uste pentsatu behar dudarik bigarren mailako txapela irabazi dudalako, orain lehenengo mailan partidak irabazi behar ditudala. Gauzak ahal dudan hobekien egite- ra irten behar dut kantxara. Laneari jarraituko dut orain arte bezala eta lesiorik izaten ez badut bidea errazagoa izanen da.

### Zer behar du zure ustez pilotari on batek?

Dena behar da gaur egun pilotari on bat izateko. Alderdi guztiak menderatu behar dituzu. Erasoan oso ongi aritu behar da, gantxoarekin, jokoan ongi eta defentsan ere hanka bizkorrak izan eta azkar mugitu. Gaur egun gainera, pilotan oso azkar jokatzen da. Horregatik, azkar eta ongi egin behar izaten da dena.

### Zeintzuk dira zure dohai eta ahuleziak?

Denetatik egiten dut eta aldi berean denean hobetu behar dut. Erasoan aireko jokoa asko hobetu eta defentsan mugimentuak azkarrago egin behar ditut.

### Urte berriari zer eskatzen diozu?

Aurtengo urtea bezalakoa balitz, niretzat aski izanen zen. Baina badakit ez dela erraza. Horregatik, partida asko jokatu eta irabaztea da nire helburua.

GERRA ZIBILA → FRANKISTEK FUSILATUTAKOAK OROITUZ

# Gerrako zauriak itxi ezinik, 76 urte igaro diren arren

Erregistroetan eskualdeko 51 pertsona fusilatu zituztela biltzen den arren, kopurua handiagoa dela uste da desagertutako asko baitaude oraindik

Goizeko ordu ttikietan ate joka etorri eta eramanak. Ziegatik indarrez ateratakoak. Egun batetik bertzeroa desagertutakoak. Lurrak irentsi

zituena eta baita gertatutakoa ere. Beran eginen dieten omenaldia aitzakiatzat hartu eta gogora ekarri ditugu eskualdeko fusilatuak.

## Eneritz IRAOLA

1936tik 1938ra bitartean izan zen Espainiako Gerra Zibila. Hala ere, galdera askok erantzun gabe jarraitzen dute oraindik. Beldurraren eraginez isilean bizi izan zuten gertatutakoa fusilatuen senideek. Orain, hirurogeita hamasei urte beranduago oroimen historikoa berreskuratzeko lanean ari dira eraildako haien familiak, udalak eta zenbait era-

kunde. Gertatutakoa behingoagatik jakin nahian. Urte luzeetan lur azpian gorde dena argitara ekartzea lan nekeza den arren.

'Navarra de la esperanza al terror' liburua oinarritzat hartu eta bertan agertzen diren eskualdeko kasurik zehatzenak bildu nahi izan ditugu. Zifra hutsarekin geratu beharrean, gertatu zenaren zati bat behintzat ezagutzeko.

## GOIZUETA

Lekukoek adierazten dutenez, 1936ko abuztuaren 14an gaueko hamarrak inguruan, Goizuetako kuarteletik guardia zibilez, erreketez eta falangistez osaturiko talde bat Biurretako Zentral elektrikora joan ziren. Jesus Ezkurra eta Inazio Egaña atxilotzea zen haien asmoa, arma bat zutela salatu baitzuen norbaitek. Zentralera hurbiltzean ar-



Eskualdeko 51 pertsona fusilatu zituztela diote agiriak, baina eskualdekoak

## FUSILATUAK

Herria	Kop.
Amaiur	3
Arizkun	2
Beintza-Labaien	2
Bera	6
Berroeta	2
Bertizarana	1
Elbete	1
Erratzu	1
Etxalar	1
Gaztelu	8
Goizueta	3
Irurita	1
Ituren	3
Lekaroz	1
Lesaka	4
Oronoz-Mugairi	2
Sunbilla	4
<b>DENERA</b>	<b>51</b>

Herri bakoitzean hildakoak

Iturria: **Altaylla:**  
*Navarra de la esperanza  
al terror* liburua,  
Tafalla 1986

## BERAKO HILERRIKO HOBI KOMUNEKO IKERKETAK

### Zazpi gorpuzkin topatu dituzte indusketa lanetan

Berako Udalak Frankismoaren biktimak omendu nahi izan ditu. Horretarako berriki herriko hobi komuna ikertzeko lanak bultzatu ditu. Horrela, Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlariak hobia ireki eta indusketa lanak egin zi-

tuzten. Donostiako Ondarretako kartzelatik preso ekarri eta Berako harrobian fusilatu ondotik, Berako hilerrian 130 lagun lurperatu zituztela uste da. Horietatik zazpi aurkitu dituzte eta eremua ezin dela gehiago ikertu azaldu

dute. Aurkitutako gorpuzkin hauek identifikatu egiten dituzte eta berriz hilobiratu. Hobi komuna itxi aurretik udal ordezkariak, fusilatuen senideek eta fusilatuen elkarteko kideek omenaldi xume bat eskaini zieten.



AITOR AROZENA

Patxi Castillo agurra dantzatzen senide, alkate eta fusilatuen elkarteko kideen aitzinean.



EUSKAL MEMORIAREN ARTXIBOA

koak ez ziren ugari ere erail zituzten gure eskualdean.

man eta fusilatu zituzten Egingakoa ospatzeko guardia zibilak Venta Berrira joan omen ziren.

Garai hartan izua zen nagusi. Fusilatuak izan zitezkeen zerrendak zabaldu ziren eskualdeko herri askotan. Gauz erreketek eta falangistak sarritan agertzen ziren. Herritar taldeak gauz kaleak zaintzen ere ibiltzen omen ziren, orduko irteerak sahies-tearren eta herritarrei ohartaraziz ez zieziaotela inori aterik ireki.

#### BAZTAN

Ahalegin guzti horiek ez zuten Baztanen odola isurtzea eragotzi. Liburu honen arabera, 13 pertsona erail zituztela biltzen baita. Batzuk aipatzearen, Mugairin Francisco Mula, diputazioko zeladorea erail zuten, hiru haurren aita. Oronozen Migel Katalanek bere burua hil omen zuen eta Arizkun Angel Mikelarena Perutxenea etxearen inguruan hil zuten guardia zibilek tiroz 1938ko abenduaren 15ean.

#### BEINTZA-LABAIEN

1936ko abenduaren 15ean tiroz hilda aurkitu zuten Pedro Elizalde.

1936ko abuztuan izan zen bigarren heriotza, talderen batzuk han inguruan zebiltzala eta antolatu zen zaindartzaren ondorioz. Guardia Zibilak beraiekin eraman zuten hamabost urteko Joan Jose Telletxea gaztea, gida zitzen eta mendiko bideak erakutsiezazkien. Guardiiek nonbait sobera edan zuten eta ilunabarrean Arretxea bordatik hurbil, areriores bat zela us-te izan zuten. Tirokatu eta hantxe bertan hil zuten gaztea.

#### BERROETA

Herritik kanpo ere fusilatu zituzten. Iruñean hil zuten Berroetako Valeriano Intxauspe. Liburuan jasotzen denez, auzoko batzuen salaketa- ren ondoren.

1938ko ekainean Maria Francisca Iturralde, hogeita hiru urteko emakumea ere tiroz hil zuten, eskualdean eraildako emakume bakarra izan zen.

#### AMAIUR

Patruila batekin izandako istilu arraro baten ondorioz, herriko bi gazte hil zituzten: Nikasio Zaldain, eta Lino Mitxelena. Haiekin batera, Tomas Sanchez ere hil zuten, atzetik tiro eginda.

#### ITUREN

Nafarroako Gobernadore Zibilaren aginduz, herriko medikua Pedro Maria Gorostidi eta sekretarioa Maurizio Gorosterrazu kargutik kendu zituzten. Bi hauek Arraizen irakasle zen Joan Bautista Iriarte, Miguel Hualde eta Jose Nagoreekin batera atxilotu eta Berako kartzelara eraman zituzten. Nagore eta Hualde aske utzi zituzten. Bertze hirurak ordea, lehenbizi Belatera eraman zituzten eta gero Lesakako pinudi batera. Han fusilatu zituzten, badi-rudi herriko bi apaizek hilketak hauekin zerikusia izan zutela.

#### ETXALAR

Jendeari muga pasatzen laguntzearekin lotutako gutunak topatu zizkietela egotzi zio-

### BIKTIMEI OMENALDIA BERAN

## Bonbardaketan hildakoak, fusilatuak eta desagertuak oroitzuz

Urte hasieran omenaldia eskainiko die Udalak Frankismoaren biktimei. 1936ko abuztuaren 2an Bera bonbardatu zutenean herritar ugari hil ziren. Horretaz gain, sei beratar fusilatu eta ber-tze lau desagertarazi zituzten Francoren indarrek: Francisco Arozamena Irazoki, Lucio Aldai Longarai, Faustino Martinez Urteaga, Cesareo Seminario Iraizoz, Juan Etxenike

Matxiarena eta Ecequiel Gomez Rodrigo izan ziren fusilatuak eta Santiago Anadon Cambero, Ramon Balza Loperena, Enrique Berasain Sorondo eta Jose Larraburu Maritxalar desagertu zirenak. Guztiak gerra baka-rraren biktima.

Memoria historikoarizor, gogoan izanen dituzte urtarilla edo otsailean Frankismoaren bik-timen alde egiteko den omenaldian.

ten Jose Telleria Arburuari, eta egun berean uretan itota aurkitu zuten. *Se ha suicidado un espia?* Irakur zitekeen egunkarietan. Benetan gertatua, bestelakoa izan zela zabaldu zen herrian. Telleriak maiz pasatzen zuen muga eta egun hartan guardia zibilak atzetik joan zitzaizkion. Ihesean Bidasoara salto egin zuenean tirokatu egin zuten.

Bilduta dauden kasu batzuk baino ez dira hauek. Erregistroen arabera, eskualdeko 51 pertsona fusilatu zituzten. Tiro bakar bategiz, bitzta ebatsi zieten. Orain egia bildu nahian dabilta eta ez da erraza izan. Garai hartan, galderak egitea debekatuta zegoelako. Eta orain, galderen erantzunak lurpetik atera behar direlako.

### BERAKO ARGITZETAKO HARROBIKO FUSILAMENUAK

## «Ehundik gora fusilatu zituzten»

«Inguru hartatik pasatakoan, behin, euri pixka bat ari zuen eta errekatxoan ura odolez gorrituta zetorren» gogoratzen dute lekukok. Harrobian amaitzeko mehatxua sarritan erabili zuten frankistek, atxilotuen eta beren familien artean kezka sortuz.


«Ehundik gora fusilatu zituzten eta Berako hilerrian hilobiratu zituztela ziur gaude» dio Lourdes Errasti Aranzadi Zientzia Elkarteko ki-deak. «Buruz behera, eskuak bizkarrean lotu-

ta hilobiratzen zituzten» gaineratzen du.

Argitzetako harrobian fusilamendu masibok egiten zituzten. Donostiako Ondarretako hondartzatik ekarritako presoak, gehienak gipuzkoarrak eta hegoalde- detik ekarritako nafarrak hantxe fusilatu zituzten. Ondoren, Berako hilerrian hilobiratzen zituzten. Tartean, Juan Etxenike beraterra, Villabonan bizi zen eta ekil-jole aritzen zena hil zuten. Berako harrobian erail zuten, herritarrek ziotenez indar naziona-

lak herrian sartu zirenean ezkilak jotzeari uko egin ziolako.

Herriko medikuek eman omen zieten amaiera fusilamendu masibo- ei izurrite baten beldur zirelako.



AITOR AROTZENA  
Lourdes Errasti Aranzadi Zientzia Elkarteko ki-dea.



**Nire txanda**  
Beñardo GOIETXE

## Desio berri on!

Eguberrietako otordu aseezinen ondotik, mundua aitzinera joaki, eta urte berrian sartu berri berritan, onak altxatu eta txarrak ahantzi nahi izaten ditugu. Eta bidanabar, jaiotze berri den urteari hainbat desio eta proiektu galdegiten dizkiogu gizaki temazuok. Neuk ere botako ditut ba, 2013an bete edo betetzen hasiko direlakoan... Nahiago nuke Euskal Herri eder honek bake bidean tinko segituko balu, eta urteetan hazitako satsizarra garbituko balitz, urrun dauden lagun eta senideak betiko hurbiltzeko. Nahiago nuke aspaldiko gorroto eta etsakeriak arintzen joanen balira. Nahiago nuke Nafarroako sos gezur usainduak jakinen balira eta horrek aldaira egokia ekarriko balu. Nahiago nuke geure mintzaira xaharra eta euskalgintza errespetuz lagundu eta zainduko balitz. Nahiago nuke lana hiltzeko partez sortu eginen balitz, eta 'legezko' lapurretak galaraziko balira. Eta, bistan da, nahiago nuke denok osasunez, lanez, maitasunez eta esker onez ahal bezain ongi biziko bagina. Urte on!

«Nahiago nuke  
lana hiltzeko  
partez sortu  
eginen balitz»

## Ezpala

Aitor AROTZENA

## Bada-spama

Nobio bila idazten duen Natasha errusiar despanpanantea; Rita Opiko Afrikako kakao produzitzaile handi baten umezurtza, hark utzitako dirutza herrialdetik atera nahizik laguntza eske; zakila luzatu eta loditzen duen tramankulua kasik doan... (Maitasuna, dirua, osasuna?) Nork sortzen du hainbete zabor? Zertarako? Papera-ren edo organikoaren edukiontzira bota behar da?

## Nabarmentzekoak



Esther PASCAL BEREAU  
Zilarrezko Titarea

Santa Luzia egunez, mende erdi batez Donezteben eta Beran jostun lanak egin dituen Esther Pascal-i Zilarrezko Titarea eta lorexorta eman zioten Doneztebeko Udalak.



Luis GARDE  
Blas de Otero poesia saria

Doneztebeko idazleak Bilboko Udalak antolatutako Blas de Otero poesia saria irabazi du, 'Maizter arrotza' bere bosgarren idazlanarekin. 6.000 euroko saria jasoko du.



Aimar OLAIZOLA  
Lau terdiko seigarren txapela

Lau terdiaren barreneko seigarren txapela lortu zuen abenduaren 16an Gasteizen, Oinatz Bengoetxea 9 tantutan utzita. Buruz buru 3 eta binaka 2 txapel ere badi-tu, hameka denara.

Atzera begira → 2003.01.09 / TTIPI-TTAPA 341 zbk.



## Amaiurko Ostaturko Erromesen aterpeaz solasean

Urdazubi eta Baztango Done Jakue Bideko Lagunen Elkarteak Amaiurko Ostaturko teiltupean Erromesen aterpea ireki zuen duela hamar urte. Juan Mari Aleman elkarteko kidea eta Amaiurko alkatea zen. Bere ondoan, Joxe Mari Iriarte kargoduna ageri zen, aterpea moldatzen hainbat lan musutruk egin zituen. Garai batean, Orreagakoak adinako garrantzia omen zuen Urdazubi eta Baztandik pasatzen zen Santio Bideak. «Elkartearen asmo sendoa da Belateko Monasterioa berreskuratzea, garai batean inguruko indartsuenetakoa izan baitzen» aipatu zituzten bi amaiurtarrek.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutze Pikabea Erredakzioa Eneitz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola Berriemaileak Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztexea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia  
Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak


Hego Euskal Herria	Europa	Baztan, Urdazubi eta Malerreka
Iparralde Euskal Herria	Amerika eta Australia	Leitza
40€	59,50€	34€
59,50€	124€	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara  
Mankomunitateak diruz lagundua



Kolaborazioak

“Es ke ematen dia kosa!”

Oskar GOÑI PETRIRENA (euskalzalea)

**G**ure hizkuntzaren egoeri buruz adibide zenbait: **1. Hiztunen eta hizkuntzen arteko harremana:** Lehengo batean, gure 6 urteko semearen adin bereko adiskidea etorri zen gururat. Bisitariak bezperan gaztelaniaz ikusi bideoaren istorioa euskara bertzerik ez dakien etxekoari kontatzeko itzulpena egin zuen. (6 urteko adiskide horren aita erabat erdalduna da eta ama erdaraz lasaiki bizi den euskaldun alfabetatu gabea). Gure semeak kontakizunari galderak tartekatzen zizkion zerbait ulertzen ez zuenean. Mamuen gisako zerbaitetaz ari ziren: ... Bai eta zonbia ateratzen da *tumbatik*... -Aita zer da *tumba*? Hilobia, hildakoak lurperatzen diren lekua- ...Eta gero hasten dira gizona *rodeatzen* ... - Zer da *rodeatzen*? Inguratzen, inguratu erran nahi du -Eta gero gizona hasten da *konvertitzen hombre-lobon*, Aita zer da *konbertitzen*? Bihurtzen, bilakatzen, gizona arteoa bihurtu zen... Eta horrela kontakizuna amaitu arte. Egoerak 6 urteko euskaldun elebakarrari eragiten dio, inori ez baitzaio gustoto suertatzen gaineko solastunak ezagutzen dutena aldiro galdetzen ibili beharra. Beraz gure semearentzako iradokizuna garbia da: *-Hi txikito! Gaztelaniaz ikasi ezak lehenbailehen taldeko azkenputz izan nahi ez baduk!* Pasadizoak eragiten dio halaber kontatzen duenari. Onerako, nire ustez. Ipuina hiruzpalautan tratatzearen ordainean hitz interesgarriak jaso edo berritu dituelakoz: hilobia, inguratu, bihurtu, bilakatu... Zer gertatuko litzateke haur guztiak gaztelaniaz poliki moldatuko balira? Erantzunari susmoa hartzea ez da zaila. Hizketaldia tratatu gabe, *tumba*, *rodeatzen*, *konvertitzen*, eta *hombre-lobo* umen arteko euskalki bereziaren lexikora pasatuko lirateke. **2. Euskainola batua:** 11 edo 12 urteko bi neska gazte parkean jostetan. Lehendabizikoak langa garai batean eskuak tinkatu eta bere buruari zilipurta eragiten dio. Lagunari ariketa egin dezan gomitatzeo dio: *-Venga animo! Si da guai! -Jo pe! Ez! Es ke ematen dia kosa!* **3. Abertzale erdalzale:** Behin batean, abertzalea omen den guraso erdalduna nahiko kezkatuta etorri zitzaidan, espainolez hitz egiten ez duen gure 6 urteko semearekin elkar ulertzeko zailtasunak zituela eta ea ez genion inoiz erakutsi behar galdezka... **4. Ozukidetxa (Osakidetzaren erdal aldaera):** Irungo hospitalean euskaraz hasi eta: *en castellano por favor...* Garai bateko *hábleme en cristiano* erramolde mingarri hartatik formetan hobetu dugu, baina ondorio berarekin. Gaztelaniaz eta kitto. Horiek horrela, azken boladan argitaratu agertu diren inkesta soziolinguistikoa eta kale neurketak direla-eta hainbortze burutazio datorkit kaskorak: Lehenik, Euskararen inkesta soziolinguistikoa ez du eza gutza erreala neurtzen. Jendeak ustez dakienari buruz iritzia agertzen du. Beraz jendearen nolabaiteko aldekotasuna neurtzeko balio digu. Gure adibietako 1. eta 2. kasuetan euskaraz dakitela erantzungo lukete, zer nolako euskara darabilten azaltzeke, hori ez baizaie galdetzen. 3. adibidean, gurasoa, euskararen alde agertuko litzateke seme alabak D erduan eskolatzen dituelakoz, baina jakina, egunero 24 orduz gaztelaniaz arituta gaztelaniari ematen dion garrantzia ez luke agertuko inkestan, eta hori da semealabei transmititzen ari diena: *bai euskaraz ikas*

*ezazue, baina hemen eta orain ezinbertzekoa espainola da.* Eta gainera beldurgarria iruditzen zaio gaztelaniaz ez dakien 6 urteko umerik egotea ere. Gaztelania ez jakitearen beldur horren gibelean, bidena-bar erranda, eleanizkeriaren gibelean dagoen ideia bera dago: euskararen aski ezarena; hots, euskarerekin ez zaigu aski, ez dugu nahiko. Mundutarizateko, mundua errausten ibili diren inperioen hizkuntzak erabili behar ditugu. Salamancan 6 urteko haurrak gaztelaniaz bertzerik ez jakitea, edo Liverpooleen ingelera bertzerik ez egiteak ez dio inori inolako izurik sortzen. Euskal Herrian espainolez edo frantsesez ez jakiteak bai. Bigarrenik, Euskararen kale erabileraren neurketak datu aski kezkarriak agertu dizkigu bereziki gune populatuenetan. Horretaz gainera, ez dio gauza handirik euskararen kalitateari buruz. Goiko adibideetako haur eta gaztetxoek kasuetan euskaraz ari zirela neurtuko zuketzen? Gure 3 semeek euskaraz gain, 3 urtekin hasi dira ingelera ikasten, eta 6 urtekin frantsesa eta gaztelania. Familia, auzoa eta lagunartea euskalduna dutenez trantsmisioa ez dago arriskuan. Baina zenbatetan ematen dira aldeko baldintzak? Ederra da eleaniztasuna, baina zergatik exigitzen zaigu beti euskaldunoi, okzitaniarrei, korsikarrei, edo inuitei eleaniztasuna? Inork ez al du sumatzen hizkuntza gutxitu batean guztiok eleaniztunak izateak lekarkeen arriskurik? Euskaraz doi-doian ari diren gaztetxoei Salamancako ikaslearen gaitasun bera exigitzen zaio gaztelaniaz eta gainera ingelera eta frantsesa. Hori bai, Osakidetzan lanpostua eskuratzeko ezin zaio inori euskara exigitu, harentzat eleaniztasunaren mezuak ez du balio. Gure burua European neurtzea maite dugu. Alta, ez diot sumatu inongo agintariari Euskal Herriko alfabetatze tasa euskararen ispiluan begiratzeko borondaterik. Europako herri izan gaitzake herritarren 10etik 8 bertako hizkuntzan idazteko gai ez denean? Halako alfabetatze tasarekin, ez al dagokigu Haiti edo Mozambikerekin alderatzea? Egun euskaltzale militanten lana funtsezkoa da oraindik, etorkizun hurbilean eraiki beharreko gehiengo euskaldunak ez duelakoz euskaraz bizitzea militantziaz aukeratuko. Euskaraz arituko da bertezetan baino erosoago zaiolako edo bertzela ez da ariko. Horrexegatik, baldintzak irauli behar ditugu berandu baino lehen. Hezkuntzan lurralde osoan eta ikasle guztientzat murgiltze eredu orokortuz, lehenbailehen herritarren alfabetatze oldea martxan jarri, euskal hedabideen bideragarritasuna bermatuz, Administrazioarako lanpostuetan euskara exigituz, kultura euskaraz sortuz, sorkuntza sustatuz, bertso eskolak betez, euskararen berpizkunde erraldoia amestuz, abestuz, babestuz eta bihar goizean hasiz milaka abertzale erdalzaleak euskaltzaletzeko, euskalduntzeko...Eskuin eta ezker, herria euskaraz leher. Bertzela, etorriko dira neurketa eta inkesta gehiago eta berriz botilari begiratuko diogu, erdi beteala ala erdi hutsik dagoenetz, hizkuntz nagusiek jan dizkiguten eremuak oharkabean atzendum eta etsipenaren mamua ez ernatzeko soldatapeko besaulkietatik hizkuntz politikaren lorpenak baikorkeriaren seaskan kulunkatuz. Herrigintzan sortutako aukera berriek hizkuntz eskubideen zanaketa betikotzen dituzten egiturak urratzeko balio beharko lukete. Euskaraz bizi nahi dugulakoz, bizi garen aldaketa garaian hizkuntzaren izaera estrategikoa agerian utz dezagun.

«Euskaraz doi-doian ari diren gaztetxoei Salamancako ikaslearen gaitasun bera exigitzen zaio gaztelaniaz eta gainera ingelera eta frantsesa. Hori bai, Osakidetzan lanpostua eskuratzeko ezin zaio inori euskara exigitu, harentzat eleaniztasuna -ren mezuak ez du balio»

## Irakurleak mintzo

## Etxe-gabetzeen egoera larriaren aurrean

Ion ANZIZAR IBARRA  
(Malerrekako Ezker Abertzalearen izenean)

Joan zen azaroan, etxe-gabetzeak ahalmentzen dituen hipoteka legeari lehenengo kritika eta salaketa juridikoak iritsi zitzaizkion Europako erakundeetarik Espainiako gobernuari; kasu honetan, Estrasburgoko Auzitegitik.

Hurrengo egunean, euskal herritar batek, etxe-gabetua izatera zihorean, leihotik salto egin eta bere buruaz beste egin zuen. Jarraian, erakundeetako ordezkariak, alderdi politikoak eta beste eragile batzuk, etxe-gabetzeen larritasunaz eta ondorioez adierazpenak egiten hasi ziren. Gure zonaldean berriz, Doneztebeko herritar batek bere buruaz beste egin zuen, etxetik botatzen ahal zuten egun berean, (nahiz eta kasu hau ongi ikertu behar den) desahuzioaren edo etxe-kaleratzearen DRAMA agerian utziz. Begi bistan gelditzen da arazoaren sakontasuna.

Azaroan, Amaia Egañaren heriotza gertatu eta, PP eta PSOE (zeinak azken urteetan Hipoteken legean aldaketak egiteari uko egiteaz gain, ordainketan ematearen aurka ere bozkatu duen hainbat aldiz),

bildu eta herritarra inolako babesik gabe uzten duen Hipoteka Legearekin amaitzeko akordioa bilatzeko saiakera egiteko asmoa iragarri zuten.

Ordu batzuk beste-rik ez ziren pasa, eta Bankaren Patronalak ohar bat egin zuen publiko, mugak agintzeko. Banka prest zegoen etxegabetzeak bi urterako gelditzeko, baldin eta "muturreko egoera" eta "arrazoi humanitarioengatik" bazen. Hortik aurrera, legegaren aldaketa aurkeztu ziguten. Banka espainiarraren erabakiak itsumustuan betekoa dituen hain zuzen ere.

Gaur, beste behin ere, hainbestetan aipatutako merkatuen diktadurak, zeina klase politikoekiko oligopolio finantziarioen diktadura besterik ez den, klase politikoaren sumisioa utziko digu agerian. Bostere finantziarioekiko sumisioa hain zuzen ere. Eta beste behin ere, agerian geratuko da Rajoy-ren Gobernu Troikaren agindua betetzen duen txotxongiloa dela, batzutan Europako banku handiei mesede egiteko, eta beste batzuetan, Hipoteka Legegaren kasuan bezala, Espainiako bankuaren aginduak itsumustuan bete eta dekretatzeko.

Dekretuak ezin du beraz, euskal herritarren heriotzak salatzen sortu diren ahotsak ixilarazteko adabakia izan; Dekretuak balizko arrazoi "humanitarioekin" milaka eta milaka

herritar utziko ditu bankaren aurrean babesik gabe. Neurri epel horiek (ikus behar dira onartuko diren kasu zehatzak) ez dute pertsonen bankaren aurrean jasaten duten egoera asimetrikoa eta injustua zailantzen jartzen. Izan ere, ez da arrazoi humanitariozko arazoa bakarrik, baizik eta giza eskubide eta eskubide sozialaren arazoa. Etxebizitza eskubidea eskubide soziala da. Bankuen gehiegikeria horren aurrean, erakundeek bitartekaritza egin beharko lukete eta alokairu sozialaren bidez, adibidez, etxebizitza bermatu.

Kasu honetan, helburua ez da eskubideak bermatzeko lege aldaketa egitea, herritarren aurkako gehiegikeria orokor honetatik at geldituko lirakeen zenbait kasu zenbatzea baizik. Arazoa ezin da muturreko kasuena izan, arazoa orokorra eta soziala da, eta neurri eta konpromiso serioak behar dira bankaren jarrearari galga jartzeko; ezinbestean, etxebizitza eskubidea bermatzeko bitartekoak jarri behar dira.

Beste aldetik, salatu nahi dugu, bertan behar geldituko diren kasuak ez dutela atzera eragintasunik izango; ondorioz, kasu berdin batek, hilabete batean edo hurrengoan, tratamendu guztiz bestelakoa izango du, horrek suposatzen duen injustiariarekin. Are eta gehiago, beraien hitzak kontuan hartuta, muturre-

ko kasuak direla jakinda.

Azkenik, salatu nahi dugu, benetan eskandaluzkoa dela erreskatetik etekinak ateratzen ari diren edo aterako dituzten bankuek, herritarrek etxetik gabe uzten jarraitzea. Bankuak salbatzeko dirua badago, baina pertsonak salbatzeko ez. Hori gutxi biltz, milaka etxebizitza egongo dira Banku Txarra deritzonean, zeinak gaizki salduak izango diren, beste norbaitek negozio handiak egiten jarraitu dezan.

Borondate eta irtenbide politikoa eman dadin, mobilizazio soziala ezinbertzekoa da, eta etxe kaleratze berte kasurik gerta ez dadin dei egiten diegu gizarteari eta norbanakoei, ezagutzen baldin badute etxe kaleratze prozesuren bat, zabaldu dezatela, gizarteak ulertu eta babestu eginen duela.

## Liztor asiaticoa

Jaione IRISARRI

Batzuentzat ezezaguna izanzen da baina beste askori lan haundiak ematen dizkiguna dugu hau. Esaterako, abenduaren 15ean 40-50 lagun inguru elkartu ginen Elgorriagan liztor honi buruz hitzegiteko. Arazo larria daukagu, baina ez bakarrik erlezainok, denok.

Frantzian 21 pertsona hil dira dagoeneko eta bileran jakin genuen-

nez, liztor hau haserratu ezkerro, 500 metro baino gehiagotan jarraituko gaitu. Zuhaitz kaxkoetan, liztor honen kabiak agertzen hari dira baina edozein txokotan egon daitezke, alerotan, egur artean, kotxe batean, kutxa batean, etabar... edozein pertsonaren ondoan.

Nafarroan administrazioak ez du arazotzat hartu gai hau eta ez du ezer egiten. Eraikin publikoetako kabiak kentzen dituzte soilik eta gainontzekoak norberaren esku gelditzen dira. Bileran erabaki genuen administrazioari eskatu behar geniola gai hau zorrotz hartzea baina itxaropen handirik ez daukagunez, guk gure lanekin jarraituko dugu. Otsailean tranpak jarriko ditugu baina honetarako jende guztiaren implikazioa behar dugu. Erlauntza ondoan jarriko ditugu baina liztorren kabiak egon diren tokietan tranpak jartzea ere beharrezkoa izanen zen. Honetarako jarri harremanetan zuten inguruko erlezainekin tranpak nola egiten dituzten jakiteko eta zuten baratze zein jardinetan ere jarri. Otsailean beste bilera bat izanen dugu eta argibide gehiago emanen ditugu. Denon implikazioa ezinbestekoa da arazo honekin bukatzeko eta gehiagora joan ez dadin, erleengatik baita naturangatik ere, ez baititu erleak soilik jaten, in-tsektu mota gehienak jaten ditu eta frutak ere gustora xurgatzen ditu.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57



**Prentsatik bildutakoak**



«Agian pedanteria ematen du, baina niretzat [poesia] errealitatean sakontzeko modu bat da. Jende aunitzek uste du poesia ihesbide bat dela, baina nik uste dut poetak inor baino gehiago bizi direla mundu honetan». «Uste dut gaurko errealitatea tamalgarrria dela, ilusiorik gabe bizi garelako. Eguneroko egunerokoa eta kitto».

**Luis GARDE**  
Doneztebeko idazlea  
D.NAVARRA, 2012.12.17

«Ez da erraza esaten [zenbat urtera arte eutsiko diodan puntan] Nik beste sei urterako kontratua dut, 39 urte bete arte, eta horiek behintzat puntan jokatzen pasa nahi nituzke. Argi dago ez ditudala egungo mailan egingo, baina bai onenen artean. Onenen artean ezin dudala aritu ikusiko banu neronek utziko nioke jokatzeari».

**Aimar OLAIZOLA**  
Goizuetako pilotaria  
BERRIA, 2012.12.18

**11 galdera labur**

**Aita eta ama lesakarrak izanik, zu Australian sortua zara?**

Ama, Nabaz auzoko Alttonbordoako Bixi Zozaia da eta aita, Zalain Zokoko Xanti Mugika txixtotarra, baina ni Australian jaioa naiz.

**Francisco, Franck edo Patxi?**

Francisco, baina hemen Franck erabiltzen dute aunitzek.

**Zer ezberdintasun daude Euskal Herria eta Australia artean?**

Lehenik klima, hemen tropikal idorra da. Paisaje zelaia ditugu, azukre kainabera landatzen dugu eta aziendak genituenean, urte osoa kanpoan ematen zuten.

**Lesakara etortzen zara?**

Lau aldiz izan naiz. Osaba-izebak eta lehengusuak ditut Beran eta Lesakan.

**Gustatuko litzaizuke Euskal Herria etortzea edo gustora zaude Australian?**

Euskal Herria maite dut, baina Australian zoriontsu naiz eta familia hemen osatu dut. Euskal odola hemen hedatuz, gure zintotasuna eta baloreak zabaltzen ari naiz.

**Etxean, euskaraz, gaztelerez, ingelesez, nola aritzen zarete?**

Gurasoekin euskaraz eta emaztea eta Ellyana eta Alaya alabekin ingelesez. Baina alabek euskara konprenitzen dute.

**Australiako bertze euskaldunekin harremanik baduzu?**

Townsvillen, North Queensland-eko Basque Clubeko kide gara eta Bizkaia eta Gipuzkoako euskaldunekin harremanak baditugu.

**Australia kanguroekin lotzen dugu. Zer gehiago aipatuko zenuke?**

Kanguroak, emuak, azukre-kainabera, mineralak, Barramundi, karra-marroak, garagardoa eta galtza motzak urte osoan.

**Zure etxera nor etortzen da Eguerrietan: Olentzero, Santa Claus, Papa Noel edo Errege Magoak?**

Etxera Santa Claus, baina Basque Club-ean bada Olentzero egun bat ere.

**Urteberriari zer eskatu diozu?**

Osa-suna eta ba-kea.



**Francisco MUGIKA → Lesakako odola duen australiarra**

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**LABEZAR**  
Tel: 948 631 076 · BERA

**zalain**  
JATEXEA RESTAURANTE  
Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalain.com

**udana**  
salazones  
UNE-EN-ISO 9001  
**IAC**  
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO  
SCC-02-0199  
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztua  
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest  
Alkaiaga ind. · Banarta, 8 - 23 pabilioia · LESAKA · Tfnoa: 948 631 536 · Faxes: 948 631 550

**BIDASOA**  
TOLDOAK · PERTSIANAK  
ESTOREAK · AUTOMATISMOAK  
MOSKITERAK · KONPONKETA  
T./F. 659 971 442  
BERA

**PPSOE,**  
Euskal  
Telebista  
digitala  
Nafarroan  
orain!  
Berria erosi taldea

## KULTURA

BERTSOLARITZA → ABENDUAREN 22AN FINALA

# Bigarren Gaztaroa nagusi Bortzirietako taldekako 14. bertso txapelketan

Linddurrenborda sagardotegiko finalean Bardo txapelkunak taldeari nagusitu zitzaion

## TTIPI-TTAPA

Bortzirietako bertso eskolak hamalagarren urtez antolatutako taldekako bertso txapelketa jokatu da. Azkenean urteetako egiturari eutsiz, 24 bertsolari aritu dira, zortzi hirukotean banatuak. Linddurrenbordan abenduaren 22an jokaturako finalean Bigarren Gaztaroa taldea (Xabier Silveira, Iban Garro eta Xabi Maia) nagusitu zaio Bardo txapelkunak taldea-

ri (Eneko eta Estitxu Fernandez eta Iñigo Olaetxea Mak). Berako Espidobaita elkarrekin bertso onenari emandako Kotto Saria Eneko Fernandezentzat izan zen. Finalerdietan, txapelkunek Baztandarrak taldea kanporatu zuten (Bittor eta Amaia Elizagoien aita-alabak eta Jon Barberena) eta txapelkunordeek Lasante taldea (Erika Lagoma, Josu Sanjurjo eta Mikel Telletxea).

Baina konpetizioa eta lehia baino gehiago, bertso festa handi bat izan zen taldekako txapelketarena. Izan ere, bertsolariekin batera, bertso-eskolatik ateratako gai-egile, gaitzaitzaile, epaile, musikari eta bertsozaleak ere plazaratu ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Giro ederrean joan da aurtengoan ere Bortzirietako taldekako txapelketa. Parte hartzaile guzkiek elkarrekin atera zuten argazkia, finalaren ondotik.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Bortzirietako ahozko ondariari buruzko lana aurkeztu dute

Mendez mende eta ahoz aho transmititu den herri jakintza galdu ez dadin, ahozko ondarearen bilketa lana egin dute Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Euskalkultur fundazioak. Abenduaren 19an egin zuten lanaren aurkezpena Beralandetan.

**saroha**<sup>®</sup>  
gozotegia okindegia

p<sup>o</sup> de eztegarra 25 bejo  
31780 berá (navarra)    t.948 63 08 99  
[www.sarobe.net](http://www.sarobe.net)

Frutas y Verduras  
**BRANDONEA, S.L.**  
VERDURAS Y BARRASNIAS

**BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152**  
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

**Xirgil**  
Mozakologia  
Jasone Goye

Alzate 1 - BERA  
Tfno: 948 631 462

T/F 948 63 70 30  
Albistur, 9 • LESAKA  
[lesaka@legarra.org](mailto:lesaka@legarra.org)

*laster!*  
Koskontako bidea, 7  
LESAKA

aitelzen ari gara  
**LEGARRA**  
LIBURUDENDA

toki berriak izen berriak  
**HELMUGA**

**KAGU**  
LIBURUDENDA

**ERROTAZAR**

**harategia**

Bertako  
produktuak

Eztegara, 3 • BERA  
Tel/Faxa: 948 630 088

**USOA**  
Nekazari  
kooperatiba

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak • Burdin tresnak
- Insektizidak • Edariak • Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etxez etxeko banaketa egiten da  
Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

**ZUBIONDO**  
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika  
BERA NAFARROA

Tel: 948 625 474

**GIZARTEA** → MUGALARREN HITZARMENA BERRITU ZEN LIZUNIAGAN ABENDUAREN 15EAN

# Akita sinatu zuten azken artzain eta fidatzailea omendu dituzte

Saldesko  
Valentin Endara,  
Saldesberekoko  
Esteban  
Altzuguren eta  
Sarako  
Andoizenbordako  
Jean Pierre Tapia

## TTIPI-TTAPA

Bortz urtetik behin sinatzen den Mugalarren hitzarmena berritu zuten abenduaren 15ean, larunbat goizean Lizuniagako Mahain-harrian, Bera eta Sara arteko mugan. Mugalarren hitzarmena sinatu zuten Bera, Etxalar, Azkaine, Biriato, Urruña eta Sarako herriek. Hitzarmen honen bidez, sei herri hauetako jabego publikoko larre, belar eta ura partekatzeko eskubidea ematen zaie bertako abeltzainei. Honetaz gain, izaten ahal diren mendisuteen aurka baikoitzaren baliabideekin elkar lanean arituko dira. Urteetako hitzarmen honen bidez, alde batego eta bertzeko artaldeek eta zaldiek larreak partekatzen dituzte, ez ordea, ahuntzak eta betizuak.

Ekitaldia Lizuniagako Mahai-harrian egin



UTZITAKO ARGAZKIA

Esteban Alzuguren, Jean Pierre Iturria eta Valentin Endara, Lizuniagan omenduak.

zen, Sarako txarangak, Berako txistulariek eta dantzariak ere parte hartu zuten, eta aureskua dantzatu zen. Ondoren, hitzarmena izenpetu zuten sei udalerrietako udal ordezkariak. Bertan izan ziren Berako Marisol Taberna alkatea eta Santiago Alzuguren zinego-tzia; Etxalarako alkate Miguel Mari Irigoien; Azkaingo auzapeza, Jean Luis Laduche; Sarako Jean Baptiste Laborde auzapeza eta Pettan Errandonea eta Michel Urbis-tondo kontseilerrak; Urruñako Odile de Coral auzapeza eta Germaine Hacala kontseilerra; eta Biriato auzapeza, Charles Oyarzabal.

Ondotik, omenaldia

eskaini zitzaizkien Saldesberekoko Esteban Alzuguren eta Saldesko Valentin Endarari, Akita sinatzen azkeneko Berako artzainak izan zirenak, eta Sarako Andoizenbordako Jean Pierre Tapia azkeneko fidatzaileari. Esker oneko solasak jaso zituzten, baita *Fazeriako Laguna* zioten zapelak ere. *Agur Jaunak* kantatuz eta Lizuniagako Bentan egin zen hamaiketakoarekin bukatu zen ekitaldia.

## Mendi Eguna ilbeltzaren 12an

Urtarrilaren 12an Mendi Eguna ospatuko da eta seigarren urtez Santa Barbarako igoe-  
ra ere egingen da. 10:00etatik 13:00etara,

6 urtetik goitiko haurrentzat eskalada egingen da Ibardinen. 10:00etan aterako dira kiroldegitik. 14:00etatik 15:00etara Santa Barbarako lgoeran parte hartzeko dortsalak banatuko dituzte. 14:30ean oinez igo behar dutenak aterako dira, 14:45ean haurrentzako lasterke-  
ta egingen da eta 15:30ean abiatuko da heldu-  
en lehenengo bikotea. Proba bukatuta, 18:30ean partehartzaileendako berendua izanen da eta 19:00etan bidaia eta eskaladari buruzko proiektzioa izanen da.

## Ikasle bikainak

Euskal Herriko Unibertsitatean 2011-12 ikasturteko ikasketa es-



## Pertsonaia

Luis Mari RETEGI

## Kirol merituari zilarrezko domina

26 urtez Berako pilotaren alde egindako lana eskertuz, Nafarroako Gobernuak kirol merituari emandako zilarrezko domina jaso zuen Luis Mari Retegi Iturbidek abenduaren 1ean. Herriko Etxeak ere zoriondu du domina honengatik.

pediente onena izan dute herriko bi ikasleek: Maitane Erdozain Ibarrrak biologian eta Jon Errandonea Martinek geologian. Udalak ere ofizialki zoriondu ditu.

## Toki Onako ikasbidaiaiko zozketa

Ikasketa bidaia finantzatzeko Toki Ona Institutuko DBH 4. mailako ikasleek egin duten zozketaren zenbaki saritua hauek dira:

1go saria: 1686 (spa batean egonaldia); 2. saria: 855 (saski bat); 3. saria: 0120 (Urdai-azpiko bat).

Sarituek institutura deitu behar dute (948-625.000).



Guri ere OPARITZEA  
gustatzen  
zaigulako...

Abenduaren 20tik  
urtarrilaren 5a arte

**%20**

ko **DESKONTUAK**  
arropetan

Urtarrilak 5ean  
EGUN OSOA IREKIAK

# LESAKA

GIZARTEA → AÑARRAK TALDEA NAGUSITU ZEN

## 23 olentzero plazaratu ziren lehiaketara

Bertze 3 taldek lehiaketatik kanpoko jaialdian kantatu zuten

**Aitor AROTZENA**

Ez ohiko eguraldi epelarekin egin zen Olentzero eta jaiotza lehiaketan parte hartze handia izan zen. 6 jaiotza atera ziren eta Irain 3. maila izan zen irabazle 10 urte artekoen kategorian eta Bianditz 11 urtetik goitikoan. Zerbitzuen Elkarteak hobekien kantatzen zuenari emandako 100 euroak ere azken talde honentzat izan ziren.

Olentzero lehiaketan, berriz, 23 talde plazaratu ziren kategoriaz ezberdinetan. 10 urte artekoetan 12 talde atera ziren eta Olentzero Basoan izan zen garai-le; 11 eta 15 urte artekoen kategorian, jaiotza lehiaketan ere irabazle izan ziren Bianditz taldeko neskek gailendu ziren eta 15 urtetik goitikoetan, Añarrak taldeak irabazi zuen lehen saria, baita Esparzarena eta Zerbitzuen Elkartearena. Horrela, arratsaldean batera ateratzeko eskubidea irabazi zuen. Lehiaketaz kanpo ondotik egin zen jaialdian hiru taldek kantatu zuten.



ARGAZKIA: J.J. GUERRERO

Añarrak taldeak irabazi zuen lehiaketa nagusiko lehen sariko 300 euroak, baita Zerbitzuen Elkarteak hobekien kantatzen zuenari emandako 100 euroak eta Esparza Saria.

### Azienda katastroa berritzea

Urteko azienda deklarazioa berritu nahi dutenek, Herriko Etxeko bulegoetatik pasa behar dute urtariraren 11 baino lehen. Udalak jakinarazi du aurten ez dutela telefonoz abisatuko eta gogorarazi du agiriak berrituta eduki-

### Ba al zenekien...

Elbarritasun zerebrala duten Gipuzkoako Aspaceko pertsonak egindako saski eta zareak ikusteko eta erosteko modua eskaintzen dutela Bereau hotelean. Katalogo zabala ere badute eta eskariak 646 684186 telefonoan egin daitezke.

tzea beharrezkoa dela PAC dirulaguntzak tramitatu ahal izateko. Be-

raz, deklarazioa egiten ez duenak ezingo du dirulaguntza hori eskatu.



### HEZKUNTZA

Urte bukaera mugitua izan dute Tantirumairu ikastolako ikasleek

#### TTIPI-TTAPA

Asteotan ekintza interesgarri ugari burutu dituzte Tantirumairu ikastolako ikasleek. Alde batetik, Bidasoko izokina harrapaketa eta kontrolerako zentroa bisitatu zuten Alkaiagan. Bertze aldetik, Olentzerok piztu zuen txondorra bisitatu zuten, nola egiten eta nola mantentzen den ikasi eta ikasleek euren txondorrek eraiki zituzten. Feria egunean *Tantirudenda* antolatu zuten 5. eta 6. mailako ikasleek eta lortutako dirua GKE batera bideratuko dute. Euskararen Nazioarteko Egunaren harira ekitaldi aunitz egin zituzten: dantzak, jokuak, herri kirolak, kantak... Ikaspilota topaketa abenduaren 12an ospatu zuten udal pilotalekuan Baztan, Labiaga eta Tantirumairu ikastolako 5. eta 6. mailako ikasleek.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Txondorra egiten, Euskararen Egunean, Bidasoko kontrol zentroan eta Ikaspilotan.

**XATURETXEA**  
ZAHAR  
JATETXEA  
T. 948 637 260 - LESAKA

**IRU BIDE**  
Erretegia · Asador  
Burrana, 3 · Lesaka  
Tel: 948 637 127

**kulki**  
umeentzako kultur kirolak  
Tel. 948 552 171  
www.kulki.org

**BEKO**  
LOREAK ETA LANDAREAK  
Frain Auzoa · LESAKA  
Tfnoa: 948 637 826

- Lentzeria  
- Bainujantziak  
- Mertzzeria  
- Jantzi tipikoak  
- Peñen blusak  
**kattogorria**  
lentzeria mertzzeria  
Behoko plaza 10 31770 Lesaka  
T. 948 627 514

# ETXALAR

GIZARTEA → ELIZAKO ORGANOA BERRITZEKO DIRU BILKETA

## Antolatzaileak kontent azoka solidarioaren emaitzekin

### Irune eta Itsaso

Abenduaren 6, 8 eta 9an merkatu solidarioa egin zen organoa zahar-berritzeko falta zen dirua atera nahian. Antolatzaileak hagitz kontent gelditu dira lortutako emaitzarekin. Jendeak aunitz eman du, eta baita erosi ere. Eguraldi txarrazenez, Udalak Eskola Zaharrak utzi zituen merkaturatu egin ahal izateko. Abenduaren 9an egin zen bi saskien zozketa eta hauek dira zenbaki sari-tuak: lehenengo saria 1096 eta bigarrena 1361.

### Pirinioetako usazaleen besta

Abenduaren 1ean Al-duden izan zen Usazale guzien bilkura eta herriko usazale kuadrila bat, Sarakoekin batera, Aldudera joan zen. Han, herri-oinez joanda, usategiak eta hango parajeak ezagutu eta bertze usazaleekin sasoiko esperientziak konpartitzeko aukera izan zuten. Ondotik, Oteiza txerriekin ostatuan aperitiboa eta pintxoak dastatu eta beraien establezimenduak

ikusi zituzten. Gero, Sarako Ondareak sareko tradizioaren inguruan egin duen erakusketa eta maketa ikusi eta Aldudeko plazako ostatuan ederki bazkaldu zuten 200 bat lagunek. Usategi guztien harrapaketa kopuruak erranzituen Pirinioetako Usategien elkarteko lehendakaria den Henri Dutournier saratarra eta boneta handia eta ttikia ere jarri zieten gehien eta guttien harrapatu zutenei (Lanne eta Katagorena). Etxalar, aitzineko urteetan bezala, hirugarren izan zen. Lanne: 1745; Napal: 1286;

Etxalar: 1043; Oskix: 848; Lantabat: 662; Lekunberri: 480; Aldude: 453 Behorlegui: 104; Sara: 49 eta Katagorena: 44.

### Bortzirietako Gorrien Mus Txapelketa

Abenduaren 7an jokatatu zen Bortzirietako Gorrien antolatutako Mus Txapelketa Herriko Ostatuan. 15 bikoteren artean Mikel Goienetxe eta Javier Arrosamena izan ziren txapelak, Joseba Santesteban eta Jon Mikel Asensio bigarren eta Kike Otazo eta Jose Ignacio Tomasena hirugarren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Etxalarko usazaleak Aldudeko bilkura ondoko bazkarian.



ARGAZKA: MIREIA MALAXETXEBARRIA

Bortzirietako Gorrien mus txapelketako une bat.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### Olentzero eta Mari Domingi etorri dira

Abenduaren 24 hainbat lagunek herriari itzulia eman zioten bi olentzeroren irudiekin. Meza ondotik elizako atarian kantuan aritzeko aukera izan zen txistulari eta trikitilarekin. Gainera, Olentzero biziduna eta Mari Domingi hurbildu ziren Eliz atarira.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### Larraburuko mus eta partxis txapelketak

Mus txapelketan, Teodoro Iribarren eta Joxe Mari Olagarai izan dira txapelak eta Santiago Olasagasti eta Daniel Iparragirre bigarren. Partxisean, Pakita Danboriena eta Candida Elizalde irabazle eta Milagros Santesteban eta Maritxu Zubieta bigarren.

## EKAITZA

Plaza berria 13 | LESAKA  
T. 622 260 634 | 948 637 559

1991-2012  
Urte guzi hauen ondoren jubilatzen naizenez, eskerrak eman nahi dizkizuet **EKAITZA**ra hurbildu zareten guzoi.

Hemendik aintziner **Ludmila** egonen da ostatuan.

Mila esker denei !!!



## KAFETEGIA HOSTALA

Zerbitzurik hoberena ematen saiatuko naiz

Ongi etorriak **EKAITZA**ra!!

Goizeko 7:30etatik aintzina irekia  
Urtarrilaren 1etik 15era itxita

## ARANTZA

OSPAKIZUNAK → OHITURARI EUTSIZ

Mendi mutilen  
besta igande  
honetan egingen da

Aterpek antolatuta, aizkora apostua eta bertso bazkaria izanen dira errege egunean

## Nerea ALTZURI

Igande honetan, ohiturari eutsiz eta Aterpek antolatuta mendi mutilen besta egingen da. Eguerdiko 12:30ean frontoian aizkora apostu mundiala izanen da. Donato eta Patxi Larretxea anaiak batetik, eta Oihan Larretxea eta Ander Erasun bertzetik nor baino nor ariko dira. Bi bikoteen arteko aizkora apostu polita izanen da. Ikusiko da gazteek edo zahartxeagoek irabaziko duten. Hau guzia trikitilari eta bertsolariaren konpainian izanen da. Ondoren, Aterpen tradiziozko bazkariarekin ospakizunak jarraituko du. Sus-trai Kolina eta Aitor Zu-

beldia bertsolariarekin bazkalondo ederra izanen da eta herriko trikitilariarekin girotuta, tartean, zozketa ere izanen da.

Bazkarirako izen ematea Aterpen egin daiteke edo 948 634 179-ra deituz.

## Kabalgata

Larunbat ilunabarrean, mezaren ondotik, erregeen kabalgata izanen da. Ohi bezala, plazan pausaldia egin eta elizaraino ailegatuko dira erregeak eta laguntzaileak. Han, opariak banatuko zaizkie herriko haurrei aspaldiko urteetan egiten den moduan.

## Arantzako zirkoa kantuan

Arantzako zirkoa ezaguna da, eta atal honetan, mendi itzuliaz aritu garenean behin baino gehiagotan aipatu dugu. Ba, orain, kantua ere badu. Izan ere, Gibelurdinek talde bizkaitarrak aurtengo kaleraturiko diskoan, hamarga-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Preso eta iheslariarekin elkartzunean mus txapelketa jokatu da

Preso eta iheslariarekin elkartzunean Bortziritako Herrirak antolatutako mus txapelketa jokatu da. Kanporaketak abenduaren 14an, ortziralarekin jokatu ziren Berako Errekalden eta Katakun, Lesakako Arranon eta Igantzako Biltokin, eta Ekaitza elkartearen abenduaren 15ean, larunbatean. Denera 33 bikote aritu ziren. Finalak, berriz, Ekaitzan jokatu ziren abenduaren 16n, kanporaketetatik pasatutako zortzi bikoterekin. Final handian, Berako Bernard Errandoneak eta Asier Larrañagak irabazi zieten Arantzako Pottuneri eta Lesakako Zelsori. Hirugarren postua Arantzako Jaime Iturria eta Juan Angel Lukanbiorentzat izan zen. Sarietako dagokienez, txapelketa 2 urdaiazpiko, 2 gazta eta 2 botila ardo irabazi dituzte eta txapelketa ordeek, 2 kiloko txuleta, 2 gazta eta 2 botila ardo.

rrer kantak "Arantzako Zirkoa" izena du. Mendiak, etxe izenak, herriak... ageri dira hitzetan. Taldeak, (batez ere bi kidek, Fredi Paia eta Katxo Larrazabalek) ongi aski ezagutzen dituzte herriko xokoak eta herriko lagunak. [www.gibelurdinek.eu](http://www.gibelurdinek.eu) web atarian informazio gehiago aurki daiteke taldeari buruz.

Ea nozpaite herrian bertan emanaldi bat eskeiniz, kanta hori ere gozatzeko dugun!!

## BORTZIRIAK

## Ipuin lehiaketako sariak banatuak

## TTIPI-TTAPA

Bortziritako haur eta gazteen ipuin lehiaketako sariak banatu dituzte Beran. A kategorian (3. eta 4. maila), Martxel Artieda Arrieta (Labiaga), Leire Bereau Etxeberria (Arantzako eskola) eta Ane Otamendi Abril (Labiaga) izan dira sari-dunak; B kategorian (5. eta 6. maila), Kattalin Berasain Goia (Ricardo Baroja), Irati Ibarra Dagerre (Labiaga) eta Garazi Migeltorena Mitxelena (Tanturumairu) eta C kategorian (DBHko 1. eta 2. maila), Oihana Amoros Abrego (Toki Ona), Asier Astiz Ribalta (Labiaga) eta Sandra Etxegarai Aldabe (Jesusen Bihotza)

**ANTZUZELAI S.L.**  
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587  
Irungo errep. BERA  
[www.antzuzelai.com](http://www.antzuzelai.com)  
[info@antzuzelai.com](mailto:info@antzuzelai.com)

Aintzinaldeak, angeluak, orma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

**J. RAMOS**  
zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditut

Sakeleko: 637 836 023 • LESAKA

**BERA**  
Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak  
Tel: 948 625 597 • Zalaia, 42 A • BERA

**ERREKALDE**  
PLATER KONBINATUAK OSTATUA  
PINTXOAK  
BOKATIAK  
TFNOA: 948 630 259 BERA

**Javier Manterola**  
Tehniko instalatzailea  
iturgintza • gasa  
kalefakzioa  
Tfnoa: 629449602 • BERA

KULTURA → ABENDU HASIERAN

## Parte hartze handia izan da Kultur Astean

20. urteurrena ospatzeko emanaldi berezia eskaini zuen dantza taldeak

**Joxean ORTEGA**

Aste Kulturala ekitaldiz betea zegoen eta jendearen erantzuna ere bikaina izan da.

Ekitaldi guztietara jende andana agertu zen: Lesakako bandaren kontzertura 60 lagun bildu ziren; Xagu Taldearen antzezlanean ere 55 lagun irriz leheratu ziren taldearen 3 partaideek antzeztutako pasadizoekin; Zinean 50 haur sekulako abenturatan murgildu ziren, liburutegian irakurtzen eta interneten ere aritu ziren; *Gazta Zati Bat* dokumental itxaropentsua bertze 60 lagunek ikusi eta amestu zuten; Iñigo Saroberekin bertze

hainbertzek turroiak egiten ikasi omen zuten (beraz, aurten kasu ikasle hauen etxetan egiten dituzten esperimenterekin!); bizkotxo lehiaketan aurkeztutako 12 bizkotxoak dastaketan desagertu ziren; Guraso Elkarteak eskeini zuten txistorra eta hirugiharra jatean ere bertarutakoek ederki berendu zuten, sagardo goxuz lagunduta, noski, eta Biltokik antolatutako erakusketa herritarren erdiak baino gehiagok bisitatu zuten.

Eskertzekoa da horrelako ekitaldiak antolatzen aritzen direnei gure partaidetzarekin erantzutea, lan handia egiten baitute debalde eta herria bizirik mantentzeagatik.

Gero, berriz Olentzeroa heldu zitzaigun: 21an eskolan azaldu zen haurren gozamenarako. 24an, goiz partean, haurrak eskean aritu ziren herrian barna eta a-



rratsaldean berriz Olentzero lehiaketa egin zen.

Bien tartean, 22an elizan Dantza Taldeak 20. urteurrena ospatzeko emanaldi berezia izan zen arratsaldeko 8etik aintzinerara.

Saskiak eta loteriak ere barra-barra izan dira: eskolak, abesbatzak, dantza taldeak, Baratzondo elkarteak, ostatuak, dendak, denek Igantzikoak aberastu nahi dituzte! Ea norbaitek lortu duen!

Eromen hau pasatuta, bertze eromena: ospakizunak, afariak, bazkariak, parrandak, urte bukaera eta opila honen ginda modura, Erregeak, kabalgata, opari gehiago... Hain-



ARGAZKIAK: JOXEAN ORTEGA

Zineak eta liburutegian, ederki pasatu dute neska-mutikoek.

bertze ekintza, ospakizun eta bizipen gozagarrien tartean ez ditugu gurekin ez daudenak ahaztu behar, ezta gu-

re bizimodu zoriontsu hau disfrutatu ezin dutenak. Norberak jakinendu nola lagundu egogera hauetan daudenei.

Ostargi optika  
%5<sup>eko</sup>  
DESKONTUA  
produktu guztietan  
ttipi txartela

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

# GAZTE OIHUA

GIZARTEA → GAZTE MUGIMENDUA

## Leitzako gazteak ere, prozesuan gogotsu

### GAZTE OIHUA

Malerreka eta Bortzietako gazteak bezala, Leitzako gazteak ere prozesu eratzailaren buru belarri dabilta lanean. Orain arteko asanbladetan eman diren eztabaidekin «oso gustura» daudela esan digute, «gazteon artean sortu den giro eta harreman onarekin, gai ezberdinen inguruan lortu dugun formakuntzarekin...» eta «orokorrean, prozesua bera oso positiboa» izaten ari omen da guztiontzat.

Gazte estrategia definitzea gelditzen zaie orain eta Leitzako gazteon ustez «garrantzi handia duen blokea da, gazteoi zuzenean eragiten diguna izateaz gain, zeresan handia duen atala baita».

Oraindik parte hartu ez dutenei deia zabaldu diete: «Norbanakotik hasita kolektibora, denon artean lortuko dugulako!», denon ekarpenak baitira maila berean garrantzitsuak, eta argi ikusi dugu umorerik ez zaiela falta, hone-las esan baitigute: «Eus-

kal Herriko hainbat gurasok lortu ez dutena, prozesu eratzailaren bidez lortuko dugu; gazteok fruta jatea atsendaldietan txokolate bero eta zukuarekin batera!».

### Zuk-gaua Lesakan

Lesakako Zukgua prozesu eratzailakoek gabonetarako ekimenak antolatu dituzte.

Abenduaren 30ean, azken 30 urteetako gazte mugimendua laburbiltzen duen "tximeletak" dokumentala erakutsi zuten Arranon eta urtarilaren 5erako Zukgua antolatu dute. Arratsaldeko 19:00tan gazte-zuku-poteoa, 21:30tan afaria Arranon eta 23:00tatik aintzine-ara kontzertuak izanen dira.



ARGAZKIA: KAXERNA GAZTETXEA

### Kaxerna Gaztetxearen muralak hirugarren erasoja jasan du

Abenduaren 1ean, herri maputxearen aldeko muralak hirugarren erasoja jasan zuen. Kaxerna Gaztetxeak berriro ere hau salatu du. Bertzetik, Kaxernako kideek erran digutenez, «Herriko Etxean sartutako mozioan murala bertan dagoen bitartean bere horretan mantentzea onartu zen nahiz eta UPNko zinegotzia kontra agertu. Marrichiweu!!».



UTZITAKO ARGAZKIA

Leitzako gazteak, eztabaida emankorrean.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Eraso faxista salatu dute Lesakako gazteek ere

Lesakako sarrerako borobilean eta herri irteerako tunelean ere margoketa faxista batzuk agertu ziren orain dela aste batzuk, herriko gazteek egindako margoketa batzuei gainezarriz. Gazteek eraso faxista hori salatu eta bakean uzteko eskatu dute.

**Zornotzako Barnetegia**

Larrea auzoa z/g - 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)

info@zornotzakobarnetegia.com

www.zornotzakobarnetegia.com

Tel.: 94 630 83 04

**ZEU ZARA PROTAGONISTA**



# SUNBILLA

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

## Sasoï bukaerako besta egin dute kanpinean

**Maidar PETRIRENA**

Kanpineko denboraldi bukaera ospatu zen abenduaren 15ean. Arratsaldeko 4etan hurrek Altxorraren bila jokua egin zuten, lau taldetan banatuta: Berdeak, gorriak, urdinak eta horiak. Talde horiak lortu zuen altxorra topatzea. Ondoren eskulanak egiten aritu ziren eta arratsaldeko 6etan txokolatada eder bat izan zuten baita txuteriaz betetako boltsa bana opari. Arratsaldeko 5etan 22 bikotek eman zioten hasiera Mus txapelketari eta Julien eta Urko Ibarra izan

ziren irabazleak. Bigarrenak Koldo eta Miguel Angel, hirugarrenak Bea eta Edurne eta laugarrenak Jesus eta Angel. Bien bitartean, beste batzuk bingoan jostatu zuten.

### Bandoa

Malerekako eskuz binakako XI. Txapelketa jokatzenez, frontoia ezin izanena da erabili egunotan: Urtarrilak 9, 16, 23 eta 30 eta otsailak 6, 13 eta 20 (asteazkenak) 17etatik 22etara. Urtarrilak 13 eta 20 eta otsailak 3, 10, 17 eta 24 (igandeak) 9etatik 15etara.



ARGAZKA: MAIDER PETRIRENA  
Mus txapeldunak eta haurrak altxorraren bila, kanpinean.



**Pertsonaia**  
Eneko HERRERA

### Nafarroako BTT Irekian hirugarren

Kadete mailako Open BTT Diario de Navarra txapelketako sailkapen orokorrean Eneko Herrera hirugarren gelditu da. Behin bigarren, 2 aldiz hirugarren, seigarren 2 aldiz eta 7. eta 4. behin gelditu da.

### Kinto bestak

Abenduaren 22an ospatuko dute 1980an sortutakoak kinto besta. Pixkanaka pixkanaka badoaz kinto bestak ospatzen.

### Inauteriak eta bestak

Inauteriei eta besteibuz solasteko bilera egiten da Iturburu ostean urtarrilaren 11n, arratseko 22:00etan.

### Zuzenketa

Eskola Kontseiluko hirugarren guraso ordezkaria Maite Aizkorbe da eta ez Koro Zelaieta, aurreko alean aipatu bezala.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Murrizketen kontrako elkarretaratzea egin da eskolan

Abenduaren 11n murrizketaren inguruko azken elkarretaratzea egin zen eskolan. Irakasle, guraso, familiakideak eta Amets Inda herriko alkatea agertu ziren.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Olentzerori ongietorria eskaini zioten

Bi taldetan banatuak kantari aritu ziren neska-mutikoak eta gero txokolatada izan zen frontoian. Olentzerori muxuak eta eskutitzak eman zizkieten.

**APARAN, S.A.**  
**BRIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

# DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 22AN

## Giro ederrean joan zen Errekaren Mendiaren Eguna

18 mendizalek bixitatu zuten Bonozorrotz mendiko buzoia

### TTIPI-TTAPA

Eguraldi ederra lagun, bikain joan zen Erreka Elkartearen Mendiaren Eguna. Goizean 18 mendizalek egin zuten hiru orduko ibilaldia eta tartean, elkarrekin Bonozorrotz mendian paratua duen buzoia bixitatu zuten. Eguerdi-

an, batzuk poteoa egiten zuten bitartean, bertze batzuk bazkari ederra prestatu zuten. Avelino Mitxeok ilar gorriak prestatu zituen, Iñigo eta Josuk haragia eta Marik tartagoxoak. Alex Txikonek emanaldi ederra eskaini zuen, inoiz baino beteago ageri zen zinean.

Bertze aldetik, Eguerberietako saskia Arantxa Arregi Alberro doneztebarrarentzat izan da, bera baitzen 1.763 zenbakiaren jabea.



ARGAZKA: ERREKA K.E.

Errekako mendizaleak Bonozorrotzen.

### MALERREKAKO ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA 176 bikote hasiko dira lehia

#### TTIPI-TTAPA

Zazpi kategoriatan banatutako 176 bikote hasiko dira Errekak hamekagarren urtez antolatutako Malerreka eskuz binakako txapelketan, otsailaren 23an jokatu diren finalen txartelaren bila. Hasten lehenbizikoak sub-22 kategoriakoak izanen dira, Donezteben eta Sunbillan izanen baitute lehen kanporaketako hitzordua urtarrilaren 9an, asteazken arratsaldean.

Urtarrilaren 13an, kategoria ttikienetako en txanda izanen da. Benjaminak Legasako frontoian ariko dira, alebinak Iruritakoan, infantilak Lesakakoan, kadeteak Sunbillakoan eta jubenilak Doneztebekoan.

Txapelketan hasten azkeneko bikoteak elite mailakoak izanen dira. Lehenbiziko kanporaketa urtarrilaren 23an jokatuko dute, Doneztebe eta Sunbillako frontoietan.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### Santa Luzia egunean Zilarrezko Titarea jaso du Esther Pascalek

Santa Luzia eguneko feria ospatu zen abenduaren 13an. Meza Nagusian Esther Pascal Bereau jostunak Zilarrezko Titarea eta lore-xorta jaso zuen Ana Etxeberria zinegotzien eskutik. Esther Pascal Bereau 1944an jaio zen Donezteben, Luis Bru Lopez de Sabando gipuzkoarrarekin ezkondu eta hiru seme-alaba ditu: Nora, Antonio eta Jon. Azken biak kirolari aski ezagunak izan dira, Antonio atletismoaren munduan eta Jon txirrindularitzan, profesionaletan ere aritu baitzen hainbat urtez. Hiru biloba ere baditu Estherrek eta denek bere ondoan egon nahi izan zuten omenaldi egunean. Esther Pascalek jakinarazi duenez, «jostun familian sortutakoa naiz eta lehenbiziko puntadak nere amarekin eman nituen eta 16 urterekin Maria Eraso jostun ezagunarekin hasi nintzen lanean, bere tailerretik hainbat jostun atera baitira». Lanbide honetan etorkizuna erabat argi ez bazen ere, «niri aunitz gustatzen zitzaidan, eta horregatik 18 urterekin lehen jantziak nere kabuz egiten hasi nintzen». 12 urtez segitu zuen josten, Nora eta Antonio bere lehen alaba eta semea jaio ziren arte. «Orduan bezeroentzat josteari utzi nion, baina etxean segitu nuen» dio. 1975ean familia Doneztebetik Berara joan zen eta han jaio zen azken semea, Jon, eta bertan mertzeria eta ehungintza denda ireki zuen, josteko bertze bulego ttiki batekin. Estherrek erran digunez, «han segitu nuen Doneztebe eta Malerreka aldeko lehengo bezeroei atenditzen, baita bortz herrietako berriei ere». 2009an erretiratu baldin bazen ere, oraindik etxe koentzat eta lagunentzat josten segitzen du eta aurtan, «mende erdia bete dut titarearekin».

### EGUBERRIAK

#### Birziklatutako produktuekin arbola egin dute

#### TTIPI-TTAPA

Doneztebarrak merkatari elkarteak eta guraso elkarteek, ikasleen laguntzarekin produktu birziklatuekin egindako arbola jarri dute ikastetxe pareko belardian. Herria animatu eta apaintzeko ideia izan da hau. Arbola eguberri guztietan ikusgai dago, inguruko arboletatik zintzilika dauden zintzilarioekin batera.

Argazkian, Sara Zelaieta (Mendaur Guraso Elkarte), Natalia Rearte (Doneztebarrak merkatari elkarte), Ines Gereka (birtziklapen tailerreko koordinatzailea), Cristina Etxeberria (Erreka Guraso Elkarte), Itziar Martin (Mendaur GE) eta Amaia (tailerreko koordinatzailea) ageri dira.



# ELGORRIAGA

GIZARTEA → ABENDUAREN 15EAN

## 60 lagun bildu ziren Asiako liztorrari buruzko bileran

Nafarroa osotik eta Iparraldetik etorri ziren gaiarekin kezkatutako erlezainak

**Mattin LARRALDE**

Abenduaren 15ean liztor asiaticoari (*vespa betulina*) buruzko hitzaldia izan zen, bertara 60 lagun inguru hurbildu ziren Nafarroko puntu desberdinetatik eta Iparraldetik. Elkarren arteko esperientziak nola bizitu dituzten eta nola jokatu behar den aipatu zuten, baita liztor hauei eragina erleen munduan, fruitu eta barazkitan eta jendeen gain ere.

### Eguberrietako ospakizunak

Oraindik ere Eguberrietako ospakizunetan bete beterik gaudenez herriko haur eta gurasoek egunotan egin dituzten eta urte hasierarekin egitekoak dituztenak aipatuko ditugu. Abenduaren 15ean zuhaitz apainketa izan zen eta haur bakoitzak bere bolatxoak, panpinak, izartxoak, argiak... paratu ditu. Abenduaren 24an aterpean elkartu ziren, eta telebista bat eta zere zoragarri bat zozketatu zituzten. Ondoren, olentzerori ongi etorria eman zitaion eta berekin herrian itzulia egin zuten. Abenduaren 26an Zorroiloak elkar-



ARGAZKA: MATTIN LARRALDE

Ekintza pila bat eginen ari dira haur eta guratsoak.

tean Estitxu ipuin kontalaria aritu zen kontu kontari. Segidan tailerak izan zituzten eta eguna ongi akautzeko afaltzeko pizzak. Abenduaren 27an herriko nerabe eta haur guztiak, guratsoek lagunduta, bainu etxera bainatzerara eta txokolate goxoa hartzera joan ziren, Urtarrilaren 1ean, urte berriarekin batera, etxez etxe urtatxak biltzen ibiltzekoak ziren eta ortziral honetan, ilbeltzaren 4an, ekintzak borobiltzeko haur bazkaria izango da. Beste urte batez guratso eta hurrek ekintza pila bat egin dituzte. Urte berri on.

### Ur puntu berria Mututa inguruan

Mututa izeneko parajearen ur puntu berri bat idekiko da.

## FLASH

### Ttipi-Ttaparen Harpidetza saria

Malerreka harpidetza saria berritza da gokie urte hasieran. Aurten, urteko tarifa 34 eurokoa izanen da.

### Sasiak erretzeko baimena

Elgorriagako Herriko Etxetik jakinarazi dutenez, sasiak eta larreak erretzeko baimena lehenbailehen eskatu behar da.



ARGAZKA: MATTIN LARRALDE

### 1935eko kintoen bazkaria

1935ko kintoen bazkaria izan zuten Hilarion ostatuan abenduaren 15ean.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

Aste txuria  
**merkealdia**  
Urtarrilaren 14tik aurrera



edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak  
Tafalla, 13 · IRUÑA · 948 230 634

# ITUREN

GIZARTEA → EGUERRIAK

## Errege bezperako ospakizuna falta da Eguberriak borobiltzeko

Arkaitz MINDEGIA

Olentzero eta urte zaharraren ondotik errege bezperako bestan esperoan gaude. Arratsaldean gaztetxoak joareekin herriari itzulia ematen diote eta gauean, Aurtitzen eta Iturenen herri-afaria izanen da, gero musika eta goizeko lehen orduetan berriz joare soinuak adituko dira. Ohiturari eutsiz joaldunak joareak jauntzi eta inauterietan bezala, Zubieta, Aurtitz eta Iturenen itzuliak emango dituzte gaueko ordu ttikitari.

### Boletoa eta egutegiak

Guraso elkarteak egutegiak eta boletoa salgai jarri ditu. Abenduaren 21ean, Herriko Etxeko sabaian ospatu

zen bestaren ondotik egin zen zozketa. 1. saria: Zari eder bat (686 zenbakia); 2. saria: zare bat (076); 3. saria: zare bat (293); 4. saria, zare bat (019); 5. saria, 20 euroko erosketa bonoa Ariztegi Harategian (603); 6. saria, 20 euroko ile mozketa bonoa Eider ileapaindegian (563). Hilabeteko epea izanen da biltzeko.

Bertzalde jadanik salgai daude 2013 egutegiak, eskolako haurren argazkiekin egin dakoak.

### Pulunpa eskola

Oporrak hartu aurretik abenduaren 21ean eguberrietako jaialdia egin zuten Pulunpa eskolan. Goizean haur hezkuntzatik hasi eta 6. maila arteko ikasle eta



UTZITAKO ARGAZKIA

### Javier Seinek irabazi du kadete mailako Diario de Navarra Opena

Diario de Navarra egunkariak antolatutako Mendi Bizikleta opena irabazi du Javier Seinek, 15 urterekin. Zortzi lasterketatik 4 irabazi ditu (Argedas, Azkoien, Muniain eta Ororbia) eta bertze laueta bigarren izan da (Oteiza, Acedo, Lukin eta Lizarra). Eneko Herrera sunbildarra hirugarren izan da.

irakasleak kantuz, dantzatuz, bertsoka ibili ziren. Giro polita izan zen, eta bukatzeko berriz guraso elkarteak antolatutako luntx eder bat izan zuten. Boletoen zozketa ere egin zuten.

### Aurtizko Ostatua

Iturengo udalak lehiaketa publikoa egin zuen azaroan Aurtizko Ostatua errentan emateko. Ez da inor auzetuz eta udaletxeak berriz aterako du lehiaketara.



ARGAZKIA: ARKAITZ MINDEGIA

### Olentzero etorri da aurten ere

Aurtitzen karro ttiki batean trikitalariekin kantuan ibili zen Olentzero eta Iturenen kantuan ibili ondotik ongi etorria egin zioten joaldunak. Haurtxoek eskutitzak eta muxuak emateko aukera izan zuten.

# ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → EGUERRIAK AKITZEKO

## Joare besta izanen da Errege bezperan

Joareak jantzita ibiliko dira haurrak eta helduak

Fermin ETXEKOLONEA

Joaldun besta urtarriaren 5ean, Errege bezperan ospatuko da. Egunez etxez etxe ibiltzen dira joareekin ttikiak eta gauez, joare besta izaten dute nagusiek. Herriko estalpean banatu zuten opariak.

herrian buelta eman ez ezik, Aurtiz eta Ituren aldera ere joaten dira bixitan eta hangoak ere etortzen dira. Inauterietako martxa hartzeko aprobeztatzen dute joaldunak. Honekin bukatuko dira Eguberrietako ospakizunak. Eguberri bezperan Olentzero ibili zen herrian, gaztetxoak eta gurasoak inguruak zituela. Herriko estalpean banatu zuten opariak.



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

### Zubietarrak Doneztebeko kontzertuan

Doneztebeko Mendi Abesbatzak antolatutako Eguberrietako kontzertuan Zubietako haur eta helduek ere parte hartu zuten. Agorreta Musika Eskolakoekin Itziar Loiarte, Iker Loiarte, Aritz Aragon, Garazi eta Naroa Santesteban eta Mikele eta Malen Etxekolone aritu ziren eta Mendi Abesbatzarekin kantari Abesbatzan Ruth Etxebeste, Koteto Juanikorena eta Itziar Smith. Emanaldi bikaina eskaini zuten.

## FLASH

### Gazteguneko batzordea

Gaztegunean batzordeko kargu batzuk berriaz suertatzen da bi urtetik behin. Idazkariak eta diruzainak bi urte egin dituzte dagoneko eta txanda eman behar zaie Fermin Etxekolonea eta Txas Esparzari. Ea bolondresik aurkezten den.

### 'Baztan' pelikula

Juinas Paul herritarren lana ikusteko aukera izan zen Elizondoko Lur aretoan eskainitako emanaldietan.

# EZKURRA

OSPAKIZUNA → AZAROAREN 24AN

## Megalitoen inguruan bada zer ikasia oraindik

Erakurri-Mendaur inguruan 15 baino dexente gehiago daude

**Fernando ETXEBERRIA**

‘Hamabost megalito berri Erakurri-Mendaurko estazioan (Nafarroa) irakurri ondok, Txukun leitzarrarekin batera Erakurri, Ezkain, Olegi eta Latargi inguruan ibili ginen, hor dauden monumentu guztiak lokalizatu eta argazkiak ateratzeko asmoarekin. Azken emaitza, dexente gehiago badaudela egiaztatu ahal izan genuen. Ez naiz ausartzen kopuru zehatza adieraztera, Sansineneak zioenez, batzuk lurrak edo belarrak estalirik egon baitaitezke.

Euskal Herriko berezietako bat den Iruñarriko menhirren izen eta esanahiari buruzko iritziz ezberdinak daude. Batzuen ustez, Iruñarriko Iruñeko Harria esanahi du, Sansonek hiriburutik harriztarra bota zuela dioen kondairan oinarrituta. Beste batzuk diote Irudiarririk datorrela, hau da, eguzkiarekin edo ilargiarekin gizakiaren irudia duten

itzalak egiten dituela. Zakil itxurako forma luzea izateagatik, amaizan nahi zuten emakumeak ere bertara hurbiltzen omen zirela diote beste batzuk. Landutako harria da, hori garbi dago, eta lau puntu kardinalak seinatzen ditu, argi eta garbi.

### Urte ona Barranka ostatuan

Aurreko urteetan bezala, akordeoilari eta bertsolariekin ospatu zuten Barranka Ostatuan urte bukaera. Jose Luis eta Reyes nagusiek diotenez, “joan den urtean ostatu eta jabetxeetan jeitsiera somatu bada ere, Barrankan urte onenetako bat izan dugu eta pozik gaudete, batez ere ostatuan udan eta udazkenean izan dugun jendearekin. Atzerritik jende asko etorri zaigu, Alemaniatik batez ere, baita Gaztela eta Extremaduratik ere. Aurreko urteetan Katalunia eta Valentziatik gehiago etortzen zen”. Halere, Aste Santuan beste urteetan baino jende gutxiago ibili omen da eta igandetan, Gipuzkoa eta Bizkaia aldetik mendi buelta etortzen ziren talde eta familietan ere nabaritu



dute jeitsiera. Berriemallean honen aldetik, eskerak eman Barrankakoei, TTIPI-TTAPAKO berriak bidaltzeko eta beste kontsultak egiteko beraien wifia erabiltzeko erraztasun guztiak eman baitzizkidate.

### Sasi erretzeari buruzko hitzaldia

Nafarroako Gobernu Ingurumen departamentuko oihan zerbitzuko zenbait arduradunek sasi erretzei buruzko hitzaldia eskaini zuten abenduaren 11n. Hamasei lagun elkartziren Malerreka aldean eskaintzen den lehen hitzaldi honetan. Partikularrek sasiak erretzeko tramiteak nola egin izan zen gai nagusia. Internetetik edo Herriko Etxetik har daitekeen agiri bat bete behar da eta baldintzak betetzeko, baimena ematen da, hori bai, bost lagun eta Oronozko suhiltzaileak bertan izatea eskatuz. Azarotik apirilera izan ohi da erretze garaia. Baratze eta belagietan pilatutako sasiak erretzeko ez da baimen be-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Sasi erretzeari buruzko hitzaldian parte hartu zutenetako batzuk goian. Iruñarriko menhirra behean.

harririk, baina kontuz ibili behar da, toki garbian erre, errepidetik urrun eta haizerik ez dabilenean. Baliteke Foruzaingoak ere denuntziaren bat jartzea, baina normalean bertan beharrezkoak ez diren bidezkoak ez dela arrisku-erik edo utzikeriarik izan egiaztatzen badute.

### Arkupeak-en eskertza

Nafarroako Kutxa Fundazioaren Zuk aukeratu zuk erabaki kanpainaren barruan, Arkupeak elkartearen proiektuak 89 lagun babsa jasotzeko zuzendaritza batzordeak eskerrak eman ditu laguntzarengatik.

**BEINTZAKO OSTATUA**  
© 948 45 00 14  
orbela@alberguesnavarra.com  
www.alberguesnavarra.com/beintza  
31753 BEINTZA LABAIEN  
**ORBELA**  
Senderismo • Albergues

**Ibon Urtiaga**  
Fisioterapia Zentrua  
www.fisioibon.com  
**948 250 221**  
Erletokieta, 9 • IRUÑEA

**ttipi-ttapa**  
etxera bidaltzea nahi baduzu,  
deitu telefono honetara:  
**(0034) 948 63 54 58**  
www.ttipi.net

## MALERREKA

KIROLA → MARTXOAREN 10EAN ETA 24AN IZANEN DIRA DONEZTEBEN

# Bi aizkora apusturako hitzorduak jarri dituzte

Lehenengoan Ruben Saralegi eta Xabier Mindegia aurrez aurre izanen dira

### Amaia MINDEGIA

Labaiengo Xabier Mindegia (29 urte) desafioa luzatu zion Leitzako Ruben Saralegi gazteari (22 urte), hitzordua Doneztebeko Beldarra jatetxean azaroaren 24rako finkatuz. Beraien laguntzaileak ondoan zizutela bertan elkartu ziren. Xabierren proposamena lau oinbiko eta sei kanaerdiko ziren eta Rubenek berriz hamasei kanaerdiko nahiago zituen. Azkenean, hamar kanaerdiko (54 ontzako) eta bina oinbiko moztea

adostu zuten. Bi oinbiko eta bi kanaerdiko Mindegia eramango ditu eta zortzi kanaerdiko Saralegik. Martxoaren 10ean, eguerdiko 12:30ean egingen da apustua Doneztebeko frontoian. Aizkolari bakoitzak 3.000 euro jokatuko ditu. Gaixotasun bat izanez gero, 72 ordu lehenago aurkeztu beharko dute sendagilearen agiria, eta gehienez ere apustua 8 egun atzeratu ahal izango dute, tarte horretan atzerapena eskatu duenak, bertzeari eguneko 30 euro eman beharko dizkio. Apustura kirolari bakoitzak bi laguntzaile eraman ahal izango ditu eta Nafarroako Herri Kirol Federazioak kontrolatuko du eta dopinaren aurkako proba

pasatu beharko dute. Parekotasun haundiko desafioa ikusi ahal izango da. Doneztebeko ferietan Nafarroako bigarren mailako txapelketan, Saralegi irabazle suertatu zen eta 48 segundu atera zizkion bigarren izan zen Mindegia-ri. Beraz, biak lehen mailan ariko dira aurten.

Xabierrentzat hirugarren apostua da oraingo hau, Ruben Saralegientzat aldiz lehenengoa.

### OIHAN LARRETXEA ETA FELIX ETXEBERRIA, OLASAGASTIREN KONTRA

Egun batzuk beranduago bertze apostu bat ere itxi zen Donezteben. Bazkaloste baten bueltan atera zen apustu proposamena itxi zuten



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Saralegi eta Mindegia, berriz ere aurrez aurre izanen dira.

Joxe Mari Olasagasti eta bere koadrilak batetik, eta Felix Etxeberria eta Oihan Larretxea eta Oihan Larretxeak osatutako bikoteak eta beraien koadrilek bertzetik. Donezteben jokatuko da norgehiagoka, martxoaren 24an eta alde bakoitzak 3000 euro jokatuko ditu.

Apustua 20 kanaerdi-

kora jokatuko da, enborrak erdibana eramanda. Igeldokoak berak bakarrik eta eskualdekoek binaka ebakiko dituzte enborrak. Etxeberria eta Larretxeak txandaka egingen dute lana, lehenengoak borts enbor ebakitzen dituenen, besteak txanda hartu eta bertze borts ebakiko ditu.

## NARBARTE

OSPAKIZUNAK → EGUERRI EGUNEAN JAIOTZA BIZIDUNA ERE IZAN ZEN

# Olentzerok ez dio hutsik egin urteroko hitzorduari

Zaldi batek zeraman gurdian etorri zen

### TTIPI-TTAPA

Ez du hutsik egin bere hitzorduari, urtero bezala menditik jaitsi zaiugu Olentzero. Zaldi batek ekartzen zuen gur-

di baten gainean exerita agertu zen, bere alboan astoa opariz beterik zuela. Herrian barna jendearen gutunak biltzen ibili ondoren, trinketea ogitarteko bat eta ardo tragoxka bat hartu eta bere martxa jarraitu zuen, jakina baita Olentzerok berea duen egunean lan asko izaten duela.

### Jaiotza biziduna

Eguberri egunean meza ondoren jaiotza biziduna izan zen elizan. Ospakizun honek bere lekua hartu du herriko eguberrietan eta ohitura bihurtu da. Ez da errexa izan jendea biltzea, baina aurten ere hogeitabat bolondres elkartu eta ikuskizun polita eskaini zuten.



# ERATSUN

OSPAKIZUNA → ABENDUAREN 1EAN

## 2012ko azkeneko Malerreka Kantuz Eratsunen egin zen

Kantu kalejira  
egun osoko  
ospakizuna  
bihurtu zen

### TTIPI-TTAPA

Malerrekako Man-  
komunitateko Euskara  
Batzordeak antolatuta,  
abenduaren 1ean Ma-  
lerreka Kantuz egin zen  
Eratsunen. Eguraldia la-  
gun, jende andana bil-  
du zen plazan eta han-  
dik-hasita, herriko txo-  
ko guztiak kantuz eta  
musikaz bete zituzten.  
Goiz osoan zehar giro  
paregabea egon zen  
Eratsungo kaleetan bar-  
na.

Hotza egiten bazu-  
en ere Malerrekako jen-  
de ugari elkartu zen he-  
rria girotzeko asmoz

euskal kantuekin.  
12etan hasi ziren herri-  
an barna buelta ematen  
Anjeliko akordeoilaria-  
ren laguntzarekin. Bu-  
elta eman ondoren Era-  
tsungo udaletxean ha-  
maiketako izan zuten,  
giro ederra sortuz.

Baina hemen ez zen  
bukatu egun horretako  
pesta, ondoren 50 bat  
lagun bildu ziren  
bazkaltzen: babarrun  
gorriak eta aza, odol-  
kia, gisadua, postrea,  
kafea eta koparekin  
jendea kantatzea animatu  
zen berriro ohitura zahar-  
rak berreskuratu nahian.

Gutxi baziren ere,  
batzuk afariarekin ja-  
rraitu zuten ordu txiki-  
ak arte.

Malerrekako Euska-  
ra Zerbitzuak antolatzen  
duen ekitaldi honetara



ARGAZKIAK: PATXI MARIEZKURRENAK UTZIAK

Giro ederra izan zen herrian Malerreka Kantuz kalejiran eta ondoko ospakizunetan.  
Hotzari aurre egiteko zer hobe lagunartean kantuan aritzea baino?

jende gehiago anima-  
tzea nahi luke, orain ar-  
te arrakasta handia izan

baitu. Seguru aurten se-  
gida izanen duela. Le-  
henbiziko hitzordua Le-

gasan izanen da ilbel-  
tzaren 5ean, larunbat  
eguerdian.



GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA  
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

## LEITZA

UDALA → ABENDUAREN 7KO BATZARREAN ONARTU ZEN

# Frankismoaren ikurrak kentzeko ekimena jarri du abian Udalak

Bilduren aldeko botoekin hartu zen erabakia

JM BARRIOLA

Frankismoa ikurrak kentzeko prozedurak jarri ditu abian udalak. Herrian eta baita Nafarroa osoan ere, frankismoa ikurrak ugariak dira oraindik, eta horrek «frankismoa arduradunek eduki duten zigorgabetasun osoa gogora ekartzen» dutela ikusita hartu dute erabakia abenduaren 7ko batzarrean, Bilduren aldeko botoekin.

Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioaren Departamentuari, Gobernuaren Ordezkaritzari eta Artzapezpikutzari luzatuko diete Nafarroako herri eta administrazio guztietan eta Nafarroako Foru Aldundiaren eraikinean dauden ikurrak kentzeko eskaria. Udaleko zerbitzu juridikoari ere beharrezko urratsak emateko eskatu diote. Herritarrei ere laguntza eskatu diete, Leitzan dauden frankismoaren ikurren kokapenaren berri emanez lagundu dezaten.

Honetaz gain, etxek desjabetzearen aurkako mozioa eta Palestinar herriarekin elkartasuna adierazten zituzten mozioak ere aurera ateratu ziren.

## Amazabal auzoko lanak

Amazabal auzoko urbanizazio lanak egiteko



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

## Mendibil mendi taldeak denboraldia bukatu du

Mendibil Aurrerako mendi taldeak 2012 urteko mendi irteeren denboraldia amaitzeko, herrian mendi irteera eta bazkaria egin zuen abenduaren 16an. Goizean heritik Eguzkiko-Muñoa mendira igo ziren, 3 ordu eta erdiko itzulia eginez. Ondoren Oialde elkartearen bazkaria ederra egin zuten. Horretaz gain, hurrengo urterako federatzeko kanpaina egin du. Beraien berri izan nahi duenak beren blogaren helbidea: [www.blogak.com/mendibilaurrera](http://www.blogak.com/mendibilaurrera)



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

## Nafar parlamentariak herrian

EHBilduk deituta, Nafarroako parlamentari diren Bakartxo Ruiz eta Xabier Lasa, izan ziren herrian, pasa den abenduko 12an. Udalako batzar aretoan eman zuten hitzaldian Nafarroak bizi duen egoeraren berri eman zuten eta parlamentuan egiten duten lanak azaldu zituzten, jendearen ekarpenak eta kezak jasoz. Hitzaldira azaldu ziren lagunek ere beren kezka nagusiak azaldu zituzten.

Arian empresa suertatu zen irabazlea eta berari esleitu zion Udalak lan hori. Auzoko lurazpiko sareak berrituko dira, zoladura eta espa-

loi berriak egitea ere aurreratu da. Lanak trafikoan eta eguneroko bizitzan eragina izan ez dutenez, kontu handiz egiteko asmoa dago.

La Amazabal auzo guztia berrituko da oraingoan, eta geldituko dituzten eremuak hurrengo fase batean egitea eskatuko da.

## FLASH

## Ttipi-Ttaparen Harpidetza saria

Ttipi-TTapa Leitzako harpidedunei urteko harpidetza saria berritzea dagokie urte hasieran. Aurten, urteko tarifa 17 eurokoa izanen da.

## Dabid Anaut-ek liburua argitaratu

Dabid Anaut herritarrik liburua argitaratu berri du, *Hizkuntzaren Barrurako Atea* hain zuzen. Dibulgazio estilo batean, hizkuntzaren sorreraz eta eboluzioaz dauden ideia eta teoria nagusiak laburtzen eta azaltzen dira liburuan. Hizkuntza eboluzioan nola kokatzen den, hizkuntzaikasitza egiten dugun edo hizkuntzarekin jaiotzen garen, hizkuntzak eta burmuinak duten lotura, hizkuntzaz nola jabetzen garen, bitxikeria batzuk... liburu nahiko tekniko den arren edonorrek ulertzeko moduan agertzen dira.

## Ilbeltzaren 12rako autobusa

Herrira mugimenduak urteberritako egitaraua prestatu du. Ilbeltzaren 4an iluntzeko sei terdietan, eskualdean kotxe karabana antolatuko du, Arribeko plaza abiatu eta Araitztik igaroz Lekunberri, ondoren Leitzara eta azkenik Areson bukatuko da karabana ibilaldia. Ilbeltzaren 5ean erregebezpera gauan, Atekabeltzen elkartasun afaria izanen da. Hauetaz gain, ilbeltzaren 12an Bilbon izanen den manifestaziorako autobusak izanen dira. Ilbeltzaren 11 arte eman daiteke izena.



**EGUBERRIAK** → URTEROKO OHITURAK BERRITZEN

## Olentzeroren kabi bihurtu da aurten ere herriko markesina

Festetako koadrilen eguneko argazkiak biltzen dituen 2013ko egutegia banatu da

### Juana Mari SAIZAR

Gabonak iritsi direla nabari da herriko txoko guztietan. Urteroko legez, etxeetako balkoietan eguberrietako zuhaitzak, apaingarriak eta olentzeroak ikusi litezke. Hala ere, aresoarrentzat gabonak iritsi direnaren adierazle nabarmena, Plaza Zaharrean egoten da. Herriko markesinaren itxura zeharo aldatzen da egun haue-

tan, Olentzeroren kabia bihurtzen baita. Danbolin, zatoa eta sua ondolan dituela, goxo goxo dago aurten ere Olentzero bere aulkian lasai eserita.

### Olentzeroren etorrera

Abenduaren 24ean, nabaritu zen eskolako umeek eguberrietako kantak ederki ikasiak ziztuztela. Astean bitan aritu ziren eskolan abestiak ensaiatzen eta egun handia iritsita herria alaitu zuten. Kantuan aritzeaz gain, borondatezko diru bilketa egin zuten behartsuei emateko asmoarekin. Iluntzean, Olentzero etorri zen herrira, ongi portatu ziren umeendako opariak ekartzera.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Auzolaneko lanak oso probetxu ona eman du, 3 zubi eta 2 karobi inguru garbitu zituzten.

### Postala eta 2013ko egutegia

Udalak, urtero moduan, postalak bidali ditu herritarrei eguberri eta urte berri zorionsuak desiratzeko. Horretaz gain, 2013ko egutegia ere banatu dute. Bertan herriko festetako, koadrilen eguneko argazkiak agertzen dira. Nahiko barre egingo dute berriz ere askok joquetan izan zituzten komeriak gogoratuta!



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Asiako liztorra azaldu da herrian, Gereñoneko bidean haritz batean, izugarritzko kabia egin dute, 6.000 liztor egongo omen dira.

**Fatxadak eta Teilatuak**  
**Isolamendu eta Zaharberritzeak**

**JACAR**

**Urte Berri On**

**T 948 126 011** **www.jacarnavarra.com**

# GOIZUETA

KIROLA → LAU TERDIKOAN SEIGARRENA

## Hamaikagarren txapela jantzi du Aimar Olaizolak

22-9 irabazi zion finalean Bengoetxea VI leitzarrari

### TTIPI-TTAPA

Aimar Olaizola kaio lan nagusi dela argi geratu zen beste behin ere. Lau t'erdiko seigarren txapela jantzi zuen Bengoetxearen aurkako finala irabazita. Distira eta tentsio handiegirik gabeko partida izan zen Gasteizko Ogetan abenduaren 16an jokatutakoa. Goizuetako aurrelariak Bengoetxearen urduritasuna aprobetxatu eta 13-0ko partziala sartu zion neurketa hasieran, finala ia erabakita utziz. Finala bukatu ondotik, Aimarrek partida osoan «zentratuta» egon zela adierazi zuen. Bengoetxeak berriz, aurkakoa, «ez naiz zentratu eta horrela ezinezkoa da Olaizolari irabaztea», Lau t'erdiko sei txapelez gain, buruz buru hiru eta bi-

naka bi baditu Aimarrek, 11 guzira. Gaur egun pilotari ari direnen artean, lehen mailako txapel ofizial gehien duen pilotaria da. Historia osoan, Retegi II.ak bakarrik dituzte gehiago, 20.

### Guraso Eskola

Guraso Eskolak urteko lehengo hiruhileko guraso bilerak martxan jarri ditu. Bilerak urta-



ARGAZKIA: DIARIO NOTICIAS

Aimar Olaizola txapelduna, Asier anai eta botilleroarekin eta bien seme-alabekin, pozik.

rrilaren 17an, otsailaren 14an eta martxoaren 7an izango dira. Gai jartzailea Belen Perez

de Prado izango da eta bertan umeen heziketan hitzegingo die gurasoei. Andres Narbar-

te Xalto eskolako jantziaren elkartuko dira eguerdiko 2:30etik 4:30era.



ARGAZKIAK: ANGEL SALABERRIA

### Umore Onako truk eta mus txapelketak

Abenduaren 8 eta 9an jokatu ziren Umore Ona elkarteko truk eta mus txapelketak. Trukean, Isabel Etxeberria eta Juan Jose Apezetxea izan ziren txapeldunak, finalean Juana San Miguel eta Cecilia Perurenari irabazita. Museko finalean ere protagonista izan ziren Isabel eta Juan Jose, baina aldi honetan azpitxapeldun izan ziren. Txapeldunak, berriz, Xabier Goizueta eta Aitor Aranberri izan ziren.

## MUSIKA AKADEMIA

### MIGEL ANGEL ARAGON



Trikitixa eta akordeoien salmenta eta alokairua  
2. eskukoak ere

Villafranca, 6 • 31015 • IRUÑEA • 948 125 059



## FANTXIKE

**%10**eko  
DESKONTUA  
30€tik gorako  
gastuan



ttipi txartela

GIZARTEA → ABENDUAREN 18AN ARIZKUNENEAN

## Baratzea lantzeko jardunaldia egin da Cedernaren eskutik

80 lagunek parte hartu zuten

### TTIPI-TTAPA

Elizondoko Arizkune-nea Kultur Etxean, abenduaren 18an egin zen 'Baratzean lanean' jardunaldia. Cederna Garalurrek antolatuta eta 80 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte. Hiru gai-multzo nagusi landu ziren: baratzeak aisirako, gizarte-baliabide gisa eta enplegurako baliabide erreal eta gaur egungo baliabide gisa. Horretaz gain, baratzeen inguruko hainbat esperientzia azaldu eta egindako lanaren berri emateko parte bat ere izan zuten.

Jardunaldia, «strategia eta aukera berriak

lantzen eta zehazten joateko abiapuntua» izan da antolatzaileen erranetan. Dibertsifikazioan oinarritutako planteamendua egin behar dela ondorioztatu zuten. Bertako baliabideak erabili beharko lirakeela gaineratu zuten «lurrak dauzkagu, produktuak dauzkagu, haziak dauzkagu, ura daukagu eta pertsonak daukagu. Guzti hori gestionatzen jakin beharra dugu». Gaurko egoera ekonomikotik ateratzeko baratzeak baliagarriak izan litekeela uste dute «krisi-egoera honetan, eta arazo guztiak gorabehera, baditugu aukerak. Herritarrok eta gizarte-eragileek elkarrekin egin nahi dugu lan. Guztion artean ahal dugu eta egin beharra du-



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

### Pakita Eraso eta Eusebio Izeta omendu dituzte Elizondon

Elizondoko Santiago Apostuluaren Elizan azken urteetan entzun den txalo zaparrada luzeena entzun zen abenduaren 8an. Pakita Eraso eta Eusebio Izetari urte luzeetan egin duten lana eskertu nahi izan zieten bizilagunek. Pakitak 97 beteko ditu urtarrilean eta organujole lanetan aritu izan da. Eusebiok berriz 85 urte ditu eta abesbatza zuzentzeko ardura hartu zuen bere gain. Javier Azpiroz apezak esker hitzak adierazi eta bizilagun batzuek amabirjinaren irudia erreproduzitutako taila eta lore sorta bana oparitu zieten omenduei. Aitzinetik, Julian Ayesa Gorrik eskainitako organo kontzertuaz gozatzeko aukera izan zuten. 1918an egindako organoa berritu denetik lehenengo kontzertua izan da. Kontzertistak azalpen didaktikoak piezen interpretazio ederrekin tartekatu zituen.

**Beatriz**  
ongizate zentrua  
centro de bienestar

“KUPOI HAU AURKEZTUTA LARRU AZALEKO AZTERKETA DOAN”

### GORPUTZ EDO AURPEGIKO ARAZOREN BAT BADUZU?

ALERGIAK, EKZEMAK, DERMATITIS ATOPOKOAK, LODITASUNA, BIZKAR ETA ARTIKULAZIO MINAK, ZIRKULAZIO ARAZOAK eta buruko minak, ondoak, azkurea, nekea, hiperaktibitatea, pikorrak, mantxak, hazitasuna, idorria, likido-errententzia...

**BEATRIZ-EK LAGUNTZEN DIZU. ARAZOA AZTERTU, ZERK SORTZEN DUEN EZAGUTU ETA SOLUZIOA EMANGO DIZUGU**

LEHEN



ORAIN



TRATAMENTU  
NATURAL ETA  
BIOLOGIKOAK

948 580 283 · Santiago, 53 · ELIZONDO

# BAZTAN

UDALA → ABENDUAREN 10EAN LEHEN BILERA

## Uraren ordenantza egiteko prozesua hasi du Udalak

Herrietako alkate eta ur-komisionatuekin batera

### TTIPI-TTAPA

Baztango ur-horniketaren ardura herri ba-koitzarena izanik uraren kudeaketari buruz egoera desberdinak daude Baztanen. Azken aldian, herrietako alkateek hainbat arazo eta gorabeheren berri eman diote udalari: matxurak konpontzeko arazoak, berankor edo morosoei kobratzeko ezintasuna, ur-eskasi aldietan ordenantza arauemaile baten falta, ur-kontagailurik ez dagoen herrietan uraren gehiegizko erabilera... Egoera horren aitzinean Baztango herriek eta Udalak Baztango uraren ordenantza egiteko beharra ikusi eta hori egiteko prozesua hasi dute.

Modu horretan abenduaren 10ean Baztango udaleko ordezkariak, herrietako alkateak

eta ur-komisionatuak aipatu ordenantza egiteko lehen aldiz bildu ziren, dena hamabortz lagun. Bileran uraren kudeaketa eraginkorragoa egin bidenabar herri ba-koitzaren autonomia eta uraren gaineko eskumenak mantentzearen beharra azpimarratu zen. Hala, hasteko, Baztango herri desberdinetan urkudeaketaren egoera zertan den jakiteko diagnosi bat eginen da eta, horretarako, herrietako alkate eta ur-komisionatu guztiei galdetegi bat pasatuko zaie. Galdetegi hori abenduaren 10ean bildutako artetik sortutako lan-talde batek eginen du, zeinean udaleko ordezkariak, Oronozko ur-komisionatua eta Berroeta, Erratzu eta Lekarozko alkateak baitauden.

Galdetegian diagnostikoa egiteko adierazgarriak diren informazioak eskuratzeko galderak egin bidenabar Baztango herri desberdinek elkarren arte-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

### Elbeteko Berdintasun Frontenis txapelketan 20 bikote aritu dira

Elbeteko Berdintasun frontenis txapelketa jokatu dute lehen aldiz 20 bikote mixtok. Kantxako bikoteak ezin ziren kantxaz kanpoko bikote izan (senar-emazte, neska-mutil lagun...). Finalean, Cristina Zabalak eta Iñaki Urrutiak 40 eta 36 irabazi zieten Ane Alberro eta Jabier Galarregiri. Hirugarren posturako lehian Ana Gonzalez eta Kote Elizaldek 30 eta 27 irabazi zieten Maite Goñi eta Aitor Jaen-i. Denek sariak izan zituzten, baina baita partida bakar bat ere irabazi ez zuten Xabier Urreagak eta Isa Miguelez-ek ere, Zurezko kutzarea jaso baituzten. Iñigo Iturralde eta Karlos Goñik bete zuten epaile lana. Izerdia botat ondotik, 42 lagun bildu ziren bazkarian, DJ eta guzti.

an komunean nahiko litzuketen kontuen berri ematea eskatuko da.

Diagnostikoa egin ondotik ordenantza zehazteko eztabaida prozesua hasiko da.

### Euskarabidearen zinemarik ez

Abenduaren 27an, Jorge Oteiza museo etnografikoan egitekoa emanaldia bertan behera gelditu zen Euskarabidearen erabakiz. Be-

ra zen antolatzailea eta azken unean gibelera egitea erabaki zun. Balkeko Etxetik salatu dutenez, «bigarren aldia da aurten Euskarabideak berak antolatutako ekintza bat bertan behera uzten duena. Proposamena beraiek eginen dute, beraiek erraten dute zein pelikulen artean aukeratu, beraien izena paratu behar da publizitatean, eta dena eginga dagoelarik bertan behera uzten dute».


### FLASH

#### Ttipi-Ttaparen Harpidetza saria

Ttipi-Ttapako Baztango harpidetza saria berritza da gogokien urte hasieran. Aurten, urteko tarifa 34 eurokoa izanen da.

#### Oronoz-Mugairiko larrialdietako zerbitzuaren alde

Nafarroako gobernuak arreta gune presentziala kendu eta lokalizatu bihurtu nahi du. Horren aitzinean, Baztango Udalak, osasun sistema publiko eta unibertsal baten eskubidea bermatzeko mobilizatza deitu zituen abenduaren 22an herritarrek. ¡Amaiurko elizaren paretik auto-karabana abiatu zen goizean eta eguerdian kontzentrazioa egin zen Oronozen.



**BETILE LUZAPENAK (ILEZ ILE)**  
**AZAZKALEN ESKULTURA**  
**MANIKURA ETA PEDIKURA | MAKILLAJEA**  
**EDERTZE SAIOA | AURPEGI DEPILAZIOA**

Legia 45-behea • BERA  
 T. 948 631 005 • M. 698 499 192 • 698 499 204

**MENDI**  
ostatua

Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**CARLOS GARAIKOETXEA**  
**ETXENIKE**  
abokatua



Santiago, 59 2C • ELIZONDO  
T. 948 581 468 M. 630 354 818

**MENDIALDE**  
Jatetxea



T. 948 453 060 • AMAIUR  
www.mendialdea.com

HERRIAK → BATZARREAK EGIN DITUZTE

# Hurrengo bi urterako herrietako alkate gehienak aukeratu dituzte

Elizondon eta Arizkunen bakarrik izan da hautagai bat baino gehiago

## TTIPI-TTAPA

Baztango hamabortz herrietako alkate izateko hautagaiak aukeratu zituzten abenduaren 16an egindako batzarretan. Horietatik zazpitan jakina zen 2013-2014 biurtekoan zein izanen zen alkate, hautagai bakarra aurkeztu zelako. Bertze zortzietan abenduaren 23ko

hauteskudetan aukeratzekoak ziren. Bi herritan bakarrik aurkeztu zen hautagaitza bat baino gehiago. Arizkunen, Isabel Bidart eta Carlos Beristain izanen dira hautagaiak eta Elizondon, Anastasio Nagore eta Mikel Sobrinoren artean aukeratu zuten herritarrek. Arizkunen Beristain izanen da alkate (131 boza lortu zituen, Bidartek baino 100 gehiago) eta Elizondon Sobrino (514 botu eta Nagorek 408).

Iban Dufurrena Iñarra (Erratzu), Pedro Alberro Ekioiz (Elbete),



UTZITAKO ARGAZKIA

## Herrirak deitutako mobilizazioarekin bat egin dute

Baztango hainbat talde nola norbanakok bat egin dute urtarrilaren 12an Herri mugimenduak, Bilbon burutuko duen Herri Mobilizazio Orokorrarekin. Preso eta erbesteratuen egoeran arreta jartzea beharrezkoa dela uste dute eta beraien oinarriko eskubideak errespetatuak izatea. Hauek izan dira atxikimendua eman dutenetako batzuk: Baztango rugby taldea, Baztandarren biltzarra, Bertso eskola, Jo ala Jo, Ezker Abertzalea, Baztango alkatea, Bildu, Ezkerrako zinegotziak, NaBai-ko zinegotzia, Herrietako alkate batzuk, Nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendakari eta lehendakari ohia, Presoen senide eta preso ohiak, Herrietako eskoletako maistru batzuk, Ufestuek, Fanfarre mi fa, Elizondoko gaztetxea eta Lekaroz eta lanbide eskolako irakasle eta ikasle batzuk.

Pablo Santervás Ustarroz (Oronoz), Matias Arriada Mendiberri (Azpikueta), Jokin Irigoien Agerralde (Gartzain), Aitor Azkarate Tomassone (Aniz) izanen dira al-

kate berriak. Lekarozen, Arraiozen, Iruritan, Berroetan eta Almandozen bertze legealdi bat egingen dute Jesus Angel Gartzia Jimenezek, Sotero Etxandi Juanikote-

nak, Pello Obregozo Istitartek, Kiko Gartxitoren Etxeberriak eta Luis Roldan Astizek. Amaiur eta Zigan Errege egunean aukeratu beharko dute alkatea.

# ferretería Quevedo

TXERRI HILTZEAN  
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxe: 948 581 210

## ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → 25 URTEZ ALKATE IZANA GOGORATUZ

# Jexus Agerre omenduko dute ilbeltzaren 12an

Museoan ekitaldia eta gero Armuan bazkaria antolatu dute

### Margari eta Koro

Jexus Agerre, 25 urtez Zugarramurdiko alkate izanaren oroimenez antolatu da ekitaldi bat urtarrilaren 12an.

Eguerdiko 12:00tan museoako auditorioan izanen da, eta Jexuxei buruzko bizipenak kontatuko dituzte berarekin erlazioa izan zuten batzuk eta bertzeek. Horretaz gain, Erramun Martikorenak kantu batzuk eskainiko ditu.

Ondotik, Armua ja-tetxean bazkari bat antolatu da, horixe baitzen Jexuxentzian besta

haundiena: bazkari eder bat egitea. Bazkarira gaiteko izena eman behar da hilaren 7a baino lehen, Marixan ostatuan.

### Mugaldekoak taldearen emanaldia

Azaroaren 8an Mugaldekoak taldeak zuzenean izan genituen Graxiana aterpetxean, atera berri duten bigarren diska, *Begiak Lekuko*, aurkeztuz.

Gaindika zegoen aterpetxea, eta 22:30ean hasi ziren lau musikariak: Mattin, Raul, Beñardo eta Edu. Bi oronez momentu goxo eta ixilak, zein alai eta mugituak eskaini zituzten, publikoari ere parte hartzera bultzatuz (laranjak, karameluak eta dis-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jexus alkatea izateaz gain, bertze gisako lan aunitzeko gizona izan zen, hoin artean, hemen ageri den bezala, zikiro-erretzailea.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

### Murrizketen kontrako elkarretaratzea euriari aurre eginez

Hezkuntzan egiten ari diren murrizketen kontrako kontzentrazio egin zen abenduaren 13an plazan. Ortzegunero herri diferentetan egiten da protesta hau, herri-herri txanda hartuz: herrien izenaren orden alfabetikoaren arabera egiten dira. Beraz, Zugarramurdin egin ondotik, Almandozek hartuko du txanda.

ka banatu zituzten). Poesiez eta kantuez inguratutako giro epel batean pasatu zen larunbateko gaua. Ederra.

### Arkupeak elkarteko elegatu berria

Arkupeak elkarteko delegatua 9 urtez izan ondotik, Mertxe Arbu-

ruak lekua utzi dio Mari Angeles Ganboari. Beraz, 2013 urtetik aintzina Mari Angeles izanen dugu lan hauetan.

## URDAZUBI

AZPIEGITURA → ABENDUAREN 14AN HAINBAT AGINTARI HURBILDU ZIREN

# Dantxarinako ur araztegia inauguratu dute

1,5 milioi euroko inbertsioa egin da

### TTIPI-TTAPA

Dantxarinako eta Ainhoako udalerriko bentenmerkataritza-jardueretatik sortutako hondakin-urak tratatuko dituen ur-araztegia inauguratu zuten abenduaren 14an.

Ekitaldian parte hartu zuten Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari José Javier Esparzak; Communauté de Communes Sud Pays Basque (CCSPB) mankomunitateko lehendakari Michel Hiriart-ek; Urdazubiko alkate Santiago Villares-

ek eta Ainhoako alkate Henri Daguerre-ek eta bertze ordezkariak.

Obrek urtebeteko iraupena izan dute eta araztegi hori hobetzerako 1,5 milioi euro behar izan da. Mugaz haraindiko lankidetzaprogramaren baitan izanik, Europar Batasunak, POC-TEFA (Espainia-Frantzia-Andorra Mugaz ha-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Ur araztegi berria ikusi zuten agintariek.

raindiko Lankidetzaprograma) Europako programaren barnean, 2010eko otsailean inbertsioaren aurrekontuaren % 65eko ekarpena onartu zuen. Europako funtsekin diruz

lagundu gabeko kopurua Nafarroak finantzatu du % 90ean (589.500 euro) eta administrazio frantsesak % 10ean (65.000 euro), aipatutako hitzarmenak ezartzen zenez.

GIZARTEA → ELKARTASUNA

## Bi mila euro bildu dira Télèthoneko asteburuan

70 pertsona inguru elkatu zen Larrunera igotzeko

**Joana GUERENDIAIN**

Télèthoneko asteburua arrunt goxoan pasatu da. Ostiral arratsaldez hiru eskoletako haurrak polikiroldegian elkartu ziren jokoak egiteko eta gero ondotik turismo bulegoak eskainitako krakadaz gozatu zuten. Larunbatean jende multxo polit bat bildu zen Larrunera igotzeko, 70 pertsona inguru. Aurten saratarrek esku zabal ukan dute, 2.000 euro bilduak izan dira. Pastiza salmentak 600 euro ekarri ditu, haurrek 350 euro eman dute eta Nuba diskotekak 930 euro.

### H ikusgarria

EliralE dantza konpainiak heldu den urta-

rrilaren 18an, gaueko 8:30ean, H ikusgarria emanen du Lur Berri gelan. Dantza ikusgarri hori haurrentzat idatzitako ipuin batean oinarritzen da, gutti gora behera 45 min irauten du. Tokiak erreserbatu behar dira, horretarako Euskal Herri hegoaldeko Herri Elkargoa deitu behar da: 0635162591. Tokiak haurrentzat (18 urte arte) 5 eurotan dira eta helduentzat 8 euro. Xehetasun gehiago nahi baduzue: [www.kultura.ccspp.fr](http://www.kultura.ccspp.fr).

### Zumba iniziaketa

Urtarrilaren 20an, Zazpiak Bat dantza elkarteak antolaturik, Zumba fitness iniziaketa bat egingen da Lur Berri gelan. Saioa arratsaldeko 3:30ean hasiko da eta ordu eta erdi irauten du. Saioa Nadège Pinaqui, zumba erakasleak, eramanen du. Er ritmo latinoen gainean



ARGAZKIA: WWW.ELIRALE.ORG

EliralE dantza konpainiak H ikusgarria emanen du Lur Berrin urtarrilaren 18an.

dantzatu nahi baduzu, animatu!

### Herriko Etxeko edantegiko mus txapelketa

Urtarrilaren 4 ean herriko etxeko edantegiko mus txapelketa hasiko da, beti bezala orzital gauetan egingen da.

### Kirol emaitzak

Urtxintxak abenduaren 8 an Orthezen aritu dira eta irabazi egin dute 20-21 matxa zaila baten ondotik. Asteburu berean Errugbilariak Azkainen jokatzan zuten, erreserbak galdu egin du 62-12 eta lehenak irabazi 20-3.

Abenduaren 15-16

ko asteburuan gure kirolariak etxean aritu dira. Eskubaloiko neskek irabazi egin dute Bokaleren kontra 17-13, sailkapenean bigarren dira.

Errugbilariak Mendikotaren kontra aritu dira eta bi ekipak irabazi egin dute, erreserbak 55-0 eta lehenak 15-7.

**MONTXO OSTATVA**  
**TABAKO-DENDA**

Plater konbinatuak | Ogirtarteak | Pintxoak | Menuak enkarguz  
Egunero irekia 09:00etatik 02:30era - Dantzarineatik 2 km.tara  
ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039

**HERRIKO ETXEO EDANTEGIA**  
**CAFÉ DE LA MAIRIE**

T: 0559542519  
Maixan eta Véronique  
**SARA**

**ARMUA JATETXEA**

T: 948 599 131  
Zugarramurdiko errep. 3 km  
URDAZUBI

**ANTXITONEA**  
Trinketea

24 logela bainuarekin · Apartakalekua  
Aire girotua gela guztietan · Hari musikala eta TB  
Gela berexia sukalde eta hotel zerbitzuarekin

Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853  
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

# SENPERE

KULTURA → 'EZ DA MUSIK' ELKARTEAREN ESKUTIK

## Mende bateko bizia bildu dute Larreko bertsulariaren liburu berrian

Ixtilarteko Jean Pierre Soudreren 160 pertsuxka idatzi dituzte

**Franck DOLOSOR**

Senperen nor ez du ezagutzen Jean Pierre Soudre Larreko Ibarrun-go Ixtilartea etxeko nagusia? 1924an sortu zen lagunak bertsuak asmatzen ditu aspalditik eta gisa huntan agertu ditugure herriaren *himnoak*: "Senpertarrak gare" eta "Urxuri gainean zoin den eder Senpere!" Ibarrundar hau Ixtilarteko semea da, laboraria eta bere andrearekin hor altxatu ditu sei seme alaba. Urteetan, ehunka bertsu asmatu ditu eta berriki 160 perla bildu eta agertu ditu liburu batean Ez da Musik elkar-teak. Eskuara eta hitzak gustatzen zaizkio oroz gainetik Larrekori. Begirada argia du eta bere erranak orratza bezain xuxenak dira. Behar

den bezala mintzo da eta entzuten ere bada-ki. Erran behar da haur denboran Matxin Irabola zena ezagutu zuela eta biziki gustukoa zuela bertsulari haundiak irri eginarazteko zuen moldea. Amodioa, lana, pilota, eskuara, herriko gertakariak... den denak aipatzen ditu Larrekok bere liburu berrian eta bertsuak horien bitartez mende bateko historia ezagutzen ahal da. Obra balios hunekin Lapurdi eta Senpere hobe-ki ezagutzeko parada du irakurleak. Brave eta Bessonart bikoteak Larrekoren bertsuak musikatu zituzten due-la zombait urte. Kantuzale gazteek ere gusturat kantatzen dituzte be-ti Ixtilarteren pertsuxkak. Ez, ez da dudarik senpertarrek aintz zor diogula Jean Pierre Soudre Larrekori! Goresmenak eta milesker.

### Hitza hitz

Gaby Etchebarne al-dudarrak euskaldunen

erranak bildu ditu bere liburu berrian, "Hitza Hitz". Hego Amerika, Asia eta Okzitaniako Tolosan barna dabilen lekukotasun bilduma aberats plazaratu ditu jadanik: artzainen, amatxien eta etorkinen gora beherak bilduz, bertzeak bertze. Aldi huntan, gauza aintz errateko duten herritar xumeak mintzarazi di-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Jean Ithourria pilotazalea eta Jean Pierre Soudre bertsularia, aspaldiko lagunak, biak 1924ean sortuak Ibarrunen.

tu, hauen artean Jakes Casaubon Senpereri biziki atxikia den Izurako semea. Berriki, Gaby Senperen izan da azken liburua sinatzen, Leku-

na saltegian. Lerro hauek idazten dituenak eskerrak bihurtzen dizkio Gabyri hari esker plazaratu baita *Senperetik Senpererat* liburua...



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Gaby Etchebarneren liburuaren aurkezpena Baionan eta Senpereko Lekuona etxean aurkeztua izan da berriki. Aurkezpenean, Peio Etcheberri Aintxart (Elkar), Maixan Arbelbide berriemailea, Gaby, Luzien Etchezarreta eta Jakes Casaubon.

**ELBETEko POSADA**

**%10eko DESKONTUA** kartan, 30€tik gorako gastuan

ttipi txartela

**VENTA PEIO**

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA	Dantxarinea 31712 URDAX	Ibardin 31780 BERA	Luzalde 31660 LUZAIDE
-------------------------------------	----------------------------	-----------------------	--------------------------



## EZKONTZAK

**Garikoitz Atxa Agerre** eta **Maria Otermin Leiza**, Almandoz eta Doneztebe-ko, azaroaren 24an Donezteben.  
**Bertrand Daguerre** eta **Eglantine Duhalde**, Sarakoak, abenduaren 8an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

**-%30 BEROKIETAN**

**kukuka**  
KUKUKA BERRI BERRI

Zazpigarutze, 1 • DONEZTEBE • 948 450 252

## SORTZEAK

**Jone Erro Iribarren**, Zugarramurdikoa, abenduaren 7an.  
**Orbara Zabaleta Fernandez**, Anizkoa, abenduaren 10ean.  
**Nagore Petrarena Migeltorena**, Donamarikoa, abenduaren 6an.  
**Maialen Apezetxea Olaizola**, Goizuetakoa, abenduaren 5ean.  
**Naroa Sanchez Meneses**, Lesakakoa, azaroaren 27an.  
**Aimar Goizueta Goizueta**, Lesakakoa, abenduaren 8an.  
**Ada Iribarren del Castillo**, Doneztebekoa, azaroaren 22an.  
**Joseba Lasaga**, Sarakoa, abenduaren 4an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

**ttipi-ttapa**

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

## HERIOTZAK

**Maria Josefa Lournagarai Iriarte**, Zugarramurdikoa, abenduaren 6an, 86 urte.  
**Celestina Zelaieta Lastiri**, Sunbillakoa, abenduaren 7an, 82 urte.  
**Maria Rosario Pacha Oteiza**, Elizondokoa, abenduaren 10ean, 81 urte.  
**Pedro Maritorea Mendikoa**, Elizondokoa, abenduaren 10ean, 85 urte.  
**Maria Julia Sarobe Biela**, Lesakakoa, abenduaren 13an, 94 urte.  
**Elena Rekarte Etxarren**, Legasakoa, abenduaren 13an, 87 urte.  
**Regina Urrutia Goñi**, Lekarozkoa, abenduaren 17an, 91 urte.  
**Maria Arregi Elozegi**, Leitzakoa, abenduaren 17an, 85 urte.  
**Bernard Mounho**, Sarakoa, azaroaren 30ean, 77 urte.  
**Marie-Thérèse Ariztia**, Sarakoa, abenduaren 9an, 88 urte.



### Jesus AGERRE INDABURU

I. URTEMUGA

(2011ko abenduaren 24an Zugarramurdin)

*Beti gogoan izanen zaitugu.*

**ZURE LAGUNAK  
ZURE HERRIAK  
ETA ZURE FAMILIAK**



### Andres AZKARRAGA ETXEBERRIA

Azpilkuetan, 2012ko azaroaren 27an

*Ez zinen arbol haundia baina itzal izugarria utzi duzu!  
Hainbat eskulan familia aintzinet ateratzeko eta orain dena utzi eta gan zara.  
Izan eta zinen bezalakoa gogoratuko zaitugu zure andre, seme alaba, billoba eta maite zaitugun guztiok.*

**ZURE FAMILIA**



### Miguel SARRATEA MICHELTORENA

Gaztelun, 2012ko abenduaren 3an

*Senar ona, Aita zoragarria, Atautxi ezin hobea eta Senide paregabea.*

*Erraza izan da zu maitatzea, Baina ezinezkoa zu ahaztea.*

**ZURE FAMILIA**

**Gure eskerrik zintzoenak une samin hauetan gurekin bat egin duzenoi.**

PILOTA → ABENDUAREN 16AN ELIZONDOKO PILOTALEKUAN

# Baztango eskuz binakako XXXI pilota txapelketako finalak jokatu ziren

110 pilotari aritu dira lehian 7 kategoriatan

## TTIPI-TTAPA

Abenduaren 16an jokatu ziren Elizondoko Baztango Txaruta pilota elkarteak antolatutako XXXI eskuz binakako pilota txapelketaren finalak. Guzira 110 pilotari aritu dira lehian zazpi kategoriatan banatuak, urriaren 13an hasita.

Finalei dagokienez, **umeak B** mailan, Oronoz Mugairiko Miren Altxu eta Txomin Altxuk 18 eta 17 irabazi zieten Elizondoko Ibai Iturregi eta Irurritako Xuban Iturregi.



FOTO MENA ELIZONDO ©

ARGAZKIA: FOTO MENA

Txapelketan parte hartu zuten pilotarietako batzuk, sari banaketaren ondotik.

**Umeak A** mailan, Amaiurko Mikel Ariztia eta Beñat Etxeberek 18 eta 7 irabazi zieten Eneko Sorondo eta Egoitz Olaizola donostiarrei.

**Kimuak B** mailan, Irurritako Xabier Mitxelena eta Iker Alemanek 18

eta 15 irabazi zieten Iru-ritako Xabi Arraztoa eta Arizkungo Eki Larralde-ri.

**Kimuak A** mailan, Elizondoko Axier Ballarenak eta Lekarozko Oier Ariztegi 18 eta 11 irabazi zieten Arbizuko

Josu Igoa eta Zizurko Txomin Zabaltzari.

**Haur** mailan, Atarri-riako Beñat Santamariak eta Zizurkilgo Iker Elizegik 18 eta 17 irabazi zieten Elizondoko Ander Zelaieta eta Lekarozko Aimar Ariztegi.

**Kadete** mailan, Oronozko Enaitz Antso eta Elizondoko Sergio Oskozek 18 eta 8 irabazi zieten Elizondoko Iñaki Antso eta Oronozko Xabier Gazteluri. Ttikien mailan bertze 8 pilotari aritu ziren.

TXIRRINDULARITZA → MASTER MAILAN

## Lehen denboraldi ona egin du Transbidasoa-Inurrieta taldeak

Maiatzean garaipena lortu zuen Monzonen

## TTIPI-TTAPA

lazko neguko lanaren ondorio izan zen Transbidasoa-Inurrieta Master mailako txirrindulari taldearen sorrera. Denboraldi ona izan da, erorketarik eta lesiorik gabe-

koa, gainera taldeko giroa arras ona izan da eta horrek du garrantziarik handiena maila honetan. Transbidasoa eta Inurrieta babesleek eskainitako laguntza ere eskertu dute, baita Fisioterapia Ibon Urtiaga, Beteluko Ura, SukalDeco, AA-Drink, Roberto Peluquerose eta Nabike laguntzaileek egindako aportazioa. TTIPI-TTAPARI ere eskertu diote laisterketen



UTZATAKO ARGAZKIA

Taldearen aurkezpen ofizialean izan zen Patxi Vilz txirrindulari profesionala.

berri ematea. Euskal Herria, Aragoi, Gaztela, Kantabria edota Madrileko laisterketetan aritu dira, Errioxako, Bizkaiako eta Aragoiko itzulietan ere present egon dira. Garaipen bakarra lortu du taldeak, maiatzean Monzonen (Aragoi) lortutakoa, hala ere hirutan sail-

katu dira bigarren eta hirugarren postuan; mai-lakako sailkapenetan ho-lagei garaipen baino gehi-ago lortu dituzte eta po-diumera aunitzetan igo dira txirrindulariak.

Itzuli eta txapelketei dagokienez Aragoiko eta Errioxako itzulietan garaipena lortu dute senior

mailan eta azkeneko horretan mendiko sailkape-na ere. Nafarroako bi txapelketa (master40 eta senior), bi Euskal Herriko txapelketa (master60 eta senior) edota Espainia-ko txapelketan Luziano Mitxelena lesakarrak lortutako brontzezko domi-na goraiatzekoak dira.

**UNIVERSITY OF CAMBRIDGE**

**COLUMBIA UNIVERSITY**  
WASHINGTON, D.C.

**TECHNICAL STAFF REQUIRED**

Post	Qualification	Experience / Age
...	...	...
...	...	...
...	...	...

**IMMEDIATE JOB OPENINGS**

**Staff**

**Wanted**

**Start Now**

**PHINA INAYAT MEDICAL COLLEGE**

**REQUIREMENT**

Category	Qualification	Experience
Physics, Chemistry, Urdu Math (Male/Female)	M.A / M.Sc	Fresh Candidates may apply. Experienced teachers may get higher start in salary.
Science/Teacher	B.C.S/B.Sc	

**CAN YOU SPEAK ENGLISH?**

**Maila guztietako Ingeles-ikastaroak**

Ikastaro estandarra  
Ikastaro trinkoak  
Online ikastaroak

**Itzulpenak:** dokumentu administratiboak, gestiokoak, CV, enpresarialak...

Frantses, aleman eta txinera ikastaroak, helduentzat, gaztetxoentzat eta haurrentzat. Hizkuntza-ikastaroak atzerrian.

# Yes, You Can!

Ingeles-ikastaro hauek etorkizuna aldatzen laguntzen ahal dizute

Urte berri on opa dizuegu!!



[www.acornlanguages.com](http://www.acornlanguages.com)



**AMAIUR**

Sokatira taldeak goma gaineko Munduko txapelketan parte hartu zuen Perth-en (Eskozia) eta brontzezko bi domina lortu zituen lehia mistoan eta 560 kiloko gizezkoen kategorian.

**ARIZTEGI, Maika**

Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa hamabigarren aldiz irabazteaz gain, 40 urterekin berak zeukan Euskal Herriko marka hobetu zuen (07:13) irailaren 1ean Donostian.

**ARPANA**

Amaita Gartzia eta Nerea Sorondo beratarrek lehen aldiz Euskal Herriko txapelketa irabazi zuten abuztuaren 10ean Aian (Gipuzkoa).

**ARRETXE, Elisa**

Ohoerezko mailako Itxako eskubaloi taldearekin debuta egin du denboraldi honetan elizondarrak.

**BALEZTENA, Josu**

Urtarrilaren 26ko Erremonte Galan agur-omenaldia egin zion Oriamendi enpresak erremontelari eratsundarrari.

**BERTIZ, Unai**

Nafarroako txapelketa bosgarren aldiz segidan irabazi zuen San Migel egunez Igantzin, Josetxo Urrutia eta Xabier Ariztegiaren aitzinetik.

**DONEZTEBE**

Nafarroa eta Euskal Herriko Herriarteko pilota txapelketak irabazi ditu aurten ere Doneztebe pilota taldeak. Nafarroakoan Iruñari irabazi zion finala uztailaren 8an Labriten eta Euskal Herrikoan Markinari uztailaren 27an Gallartan (Bizkaia).

**ELIZALDE, Ugaitz**

Jubenil mailako buruz buruko pilota txapelketa ez ezik, lau terdiaren barreneko Guillermo Mazo txapelketa ere irabazi ditu Errekako iturrendarrak. Lau terdikoa-ren finalean, 18-15 irabazi zion Jon Olaizola lesakarrari.

**EZKURRA, Josetxo**

Uztailaren 14an debuta egin zuen profesionaletan Kotetoren ilobak garaipen garbi batekin. Promozio txapelketako finalera ere ailegatu zen Olazarrekin bikote eginez.

**Amaiurko sokatira taldea Munduko txapelketako podiumean, Eskozian.****EZKURRA, Koteto**

Orona buruz buruko Masterra irabazi zuen urte hasieran, finalean Urrutiari 30-28 irabazita eta lehenbiziko aldiz emandako Urrezko Erremontea jaso zuen, 2011ko erremontelari onena izateagatik.

**FAGOAGA, Itsaso**

Espaniako Eskeet Olinpiko txapelketa seigarren aldiz irabazi zuen urriaren 12an Granadan eta aldi berean jokatu zen Iberoamerikako txapelketan bigarren izan zen. Nafarroako txapelketa eta Espainiako Kopa ere irabazi ditu.


**GANBOA, Manuel**

Elgorriagako txirrindularia nagusitu zen La Indurain probako ibilbide luzean, hamar laguneko sprintean irabaziz. 1.681 txirrindulari atera

ziren Beran azkenekoz egin zen proban.

**GONZALEZ, Kuki**

Baztan Futbol Taldeak kategoria mantendu zuen egunean omenaldia eskaini zion hainbat urtez taldearen alde egingo lana eskertzeko.

**IBARGARAI, Xabi**

Buruz buruko Munduko pala txapelketan brontzezko domina lortu du, hirugarren posturako lehia Urkijori irabazita. Ezuste ederra eman du erratzuarrak, batez ere Gaubeka kanporatuz.

**IGARZABAL, Bixente**

Euskal Herriko lehenbiziko Ironmana, Donibane Lohizuneko Ironbask proba irabazi zuen irailaren 8an lesakarrak, kasik 10 orduko lanaren ondotik. Altriman proban bigarren izan zen, seigarren Quebrantahuesosko Triatloian eta 24. Elbrunman proba famatuan.

**IRURITA**

Laxoa eta paxakako txapelen eskusiba du azken urteetan. Baztan-Errekako laxoa txapelketaren 33. edizioan bere bederatzigarren txapala jantzi zuen Irurita Joseba Urtasun, Guillermo Etxenike, Jesus Etxenike eta Xabier Riparekin. Arraiozen abuztuaren 4an jokatu-tako finalean 9-3 irabazi zion Doneztebe Ari. Laxoa Elkarteak eta Arraiozko herriak Mariano Maritorea arraioztarra omendu zuten finaleko egunean. Paxakan Migel Garate, Joseba Urtasun eta Joxe Mari Salaburu izan ziren txapeldunak.

**Josu Baleztena eta Koteto Ezkurra, Erremonte galan sariak jaso ondotik.**




**Iuritak irabazi ditu laxoa eta paxaka txapelketak, joku zuzeneko txapelketetan azken urteetako nagusitasunari eutsiz.**

### JAUNARENA, Jon

Bigarren mailan inork lortu ez zuena lortu du leitzarrek: binakakoa, banakakoa eta lau terdiko txapelketak irabaztea urte berean. Lehen mailan ere Retege II.ak eta Irujok bakarrik egin dute.

### MINDEGIA, Xabier

Otsailaren 19an apustua irabazi zion Julen Kañamarese Donezteben. Nafarroako bigarren mailakoan azpitxapeldun izan zen eta lehen mailan ariko da aurten.



### OLAIZOLA, Aimar

Buruz buruko txapel nagusia hirugarrenez jantzi du goizuetarrak, San Juan eguneko finalean Irujori 22-7 irabazita. Lau terdikoa ere seigarren aldiz jantzi du abenduaren 16an, Bengoetxea VI.ari 22-8 irabazita.

### ORONAZ, Beñat

Nafarroako 22 urtez behetik buruz buruko txapelketa irabazi du

Errekako lesakarrak. Finalean 18-4 irabazi dio Pilotajaukuko Lopez-urriaren 21ean Labriten.

### OSKOZ, Imanol

Nafarroako mendi automobilismo txapelketan, junior eta maila absolutuan txapeldun izan da elizondarra, Peugeot 205 GTI autoarekin. Jabier Arregi izaten du kopiloto zenbait lasteketetan.

### OTXANDORENA, Iñaki

Asegarce enpresarekin azken partida azaroaren 24an jokatu zuen Labriten atzelari orenaldia ere jaso zuen. Halerere, bertze maila batean bada ere, Garferen eskutik bertze bi urtez profesionaletan aritzeko aukera izanen du.

### OTXOTEKO, Irati

Zilarrezko bi domina lortu ditu txirrindulari lesakarrak junior mailako Espainiako pistako txapelketan. Abiadura eta 500 metroko probetan bigarren izan da.



### PETRIRENA, Ane

Kadete mailako Espainiako atletismo txapelketan 300 metroko lasterketa irabazi du 15 urteko sunbildarrak, Espainiako errekorra horetuz (40:19).

### RETEGI, Joxelu

Hogei urtez Nafarroako Herri Kirol Federazioako presidente izan ondoren, kargua utzi du aurten. Xabier Urrutia arraiotzerra da presidente berria azaroaren 17ko batzarraz geroztik.



### SARALEGI, Ruben

Aste berean, bi txapel lortu ditu. Azaroaren 11n Euskal Herriko hirugarren mailakoa Aldatzen irabazi ondoren, azaroaren 16an Nafarroako bigarren mailakoa irabazi zuen aizkolari leitzarrek Donezteben.

### SOUZA, Xanta

Nafarroako nahiz Euskal Herriko txinga eramate txapelketak irabazi zituen lesakar-brasil-darrak eta bietan errekorra egin zuen. Nafarroakoan 45 plaza egin zituen uztailearen 11n Iruñean eta Euskal Herrikoan 47 plaza terdi pasatuak (zehazki, 1.335,17 metro) uztailearen 28an Elizondon.

### TOKI ONA BORTZIRIAK

Saskibaloiak berri onak eman ditu. Berako mutilen senior taldeak Lehen Maila autonomikoko liga irabazi eta mailaz igotzea lortu zuen. Neska kadeteek ere Nafarroako liga irabazi zuten eta mutiko kadetak eta neska infantilak bigarren izan ziren.



### URRUTIA, Migel Mari

Aldi bateko erremonteak utzi eta emaztearekin Mexikora bizitzera joan da saldiastarra. Erremontelari eta erremontezaleen omenaldia jaso zuen otsailaren 4an. Kutxa txapelketa jokatuzera bueltatu da, baina berriz Mexikon da.

### URTASUN, Gorka

2010ean bezala, frontoi laburreko buruz buruko Martiko txapelketa irabazi zuen. Errege Egunean Labriten jokaturako finalean 30-22 irabazi zion Julen San Migel-i.

### VILA, Patxi

Beghelli Saria txirrindulari profesional bezala bere azken lasterketa izan dela adierazi du beratarrek. Bere kirol ibilbidean lagundu diotenei eskerrak eman dizkie eskutitz bidez.

### YANCI, Salvador

Kasik hiru hamarkadatan Lesakako Beti Gazte elkartearen zuzendaritza batzordeko kide eta azken 16 urtetan presidente izan denak omenaldia jaso du maiatzaren 26an Mastegi futbol zelaian.



**Toki-Ona Bortziriak saskibaloia taldeak denboraldi bikaina egin du.**

## urtarrilak 3-urtarrilak 17

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

## Kontzertuak



ELIZONDO | 2013.01.05

**Gatibu eta Sei Urte taldeen emanaldia Lur aretoan**

Errege bezperako gauak opari polita ekarriko die musikazaleei, irudiko Sei Urte taldeak eta Gatibuk beraien diska berriak aurkeztuko baitituzte Lur-en.

## Ospakizunak



ARANTZA | 2013.01.06

**Mendi Mutil Ohien Besta ospatuko dute Errege Egunean**

Eguerdian aizkora apostua, trikitilariak, bertsolariak, ondotik bazkaria Aterpen eta bazkaldoan Sustrai Kolina eta Aitor Zubeldia bertsolariak ariko dira.

## Ospakizunak



BERA | 2013.01.12

**Santa Barbarako VI. Igoera, Mendi Egunaren baitan**

Goizez haurrendako eskalada izanen da Ibardinen eta arratsaldean Santa Barbarako VI. igoera. Proba ikustera oinez joan nahi duenak ere badu aukera.

## ARANTZA

**Mendi Mutilen eguna**

Urtarrilaren 6an ospatuko da. Xehetasunak 14. orrian.

## LESAKA

**Zuk-gaua antolatu dute gazteek**

Urtarrilaren 5ean Zuk-gaua antolatu dute Zukgua prozesu eratzaleko gazteek. 19:00etan gazte-zuku poteoa, 21:30ean afaria Arranon eta 23:00etan kontzertuak.

## Zinema

## DONEZTEBE

**Guraso Elkartearen zine denboraldia**

Urtarrilaren 3an *Hamburgesa zaparrada* filma eskainiko da zinemari 16:30ean eta *Urte berri on amona* filma 18:30ean.

## Bertsuak

## BERA

**Bertsotrama**

**Abenduaren 18an** *Irausziazu bidia, Xabier* bertsotrama: Onintza Enbeita, Jon Maia, Julen Zelaieta eta Xabier Silveira. 22:00etan Kultur Etxean.

## Mendi ateraldiak

## BAZTAN

**Baztango Mendigoizaleak**

Urtarrilaren 6an Elizondo-Etxaide-Santa Barbara-Ariztegi-Gartzain-Irurita-Egozkue-Arraioz-Lekaroz-Elizondo ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek (08:00).  
Urtarrilaren 13an Amaur-Luroko atekalduin-Aritzakun-Eskola-Kantanea-Wasintong-Urlegi-Luroko atekalduin dute Baztango Mendigoizaleek (08:00).

## Kontzertuak

## ELIZONDO

**Gatibu eta Sei Urte taldeak Lur aretoan**

Urtarrilaren 5ean Gatibu eta Sei Urte taldeek kontzertua eskainiko dute Lur aretoan Errege bezperan, beraien diska berriak aurkeztuz. Sarrerak, aurretik 10 euro, takilan 13 euro.

## BERA

**'Begiak lekuko' emanaldi akustikoa**

Urtarrilaren 12an Mugaldekoak taldeak *Begiak lekuko* emanaldi akustikoa eskainiko du 20:30ean Kultur Etxean.

## Antzerkiak

## IRURITA

**Hitzak antzezlana Hika Teatroaren eskutik**

Urtarrilaren 13an *Hitzak* helduendako antzezlana eskainiko du Hika Teatrotik 19:00etan Damaso Zabalza Bilgunean. Aktoreak: Ane Pikaza, Ainhoa Aierbe, Klara Badiola, Javi Barandiaran eta Agurtzane Intxaurraga.

## Omenaldiak

## ZUGARRAMURDI

**Jesus Agerre gogoan**

Urtarrilaren 12an 25 urtez herriko alkate izan zena gogoratuko dute. Xehetasunak 30. orrian.

## Solosalduak

## ELIZONDO

**Krisiari herritik buelta emanez**

Urtarrilaren 17an *Krisiari herritik buelta emanez* solasaldian Sakanako esperientziak ariko da solasean Joseba

Garmendia EHUko ekonomia irakaslea eta Sakantzen sareko kidea. Sozioekonomiako herri bilguneak antolatu du 19:00etan Arizkunean.

## Ospakizunak

## LEGASA

**Malerreka kantuz**

Urtarrilaren 5ean Malerreka kantuz ekimenaren saio berri bat antolatu du Malerrekako Euskara Batzordeak, 12:00etan herriko plazan abiatuta.

## ELIZONDO

**San Anton eguna**

Urtarrilaren 17an ospatuko da San Anton Eguna. 12:00etan Zopak. 12:15ean bertsolariak. 13:00etan zozketa, Zahar Etxearde alde.

## BERA

**Mendi eguna**

Urtarrilaren 12an ospatuko da eta horren baitan, eskalada Ibardinen eta Santa Barbarako VI. Igoera. Xehetasunak 11. orrian.

## PROPOSAMENA

## ELIZONDO

**San Anton Eguneko zozketa**

San Antonek debozio handia du eskualdeko txoko ezberdinetan, baina Elizondon, Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxearen alde egingen den zozketa izaten da eguneko berezitasuna. 13:00 aldera zozketatuko dira behia eta bertze aziendak, baina aitzinetik, eguerdian zopak banatuko dituzte eta bertsolariak ere lanean arituko dira plaza ingurua girtzen.



**gaztezulo**  
HI ETA HIRE MUNDUAK

com

**PREZIO TXIKIA  
OPARI HANDIA**



**20 € BAKARRIK  
URTE OSORAKO**

**EGIN HARPIDETZA  
943 457 250  
harpidetza@gaztezulo.com**

**GUK ZURI ERE  
OPARI... aukeratu!**



**ESNE BELTZAREN  
CD+DVDA**



**GATIBUREN  
DISKO BERRIA**

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**ORONÓZ-MUGAIRI.** Bi bizitza salgai, mobleztatuak daude. Berogailua, igogailua, trastelekua eta bajerarekin. 17 milio pezeta eta 18 milio pezeta/106.000 eta 112.000 euro. ☎ 948 585036.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**URDAZUBI**

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**ETXALAR.** Etxea salgai, eguzkitsua eta argitsua. Sukaldea, egongela ederra, hiru logela, 2 komun, balkoiak, jardin handia eta garajea. Kalitatezko eraikin berria prezio ezin hobean. 215.000 €-tik hasita. ☎ 670 973209



**LESAKA.** Etxebizitza haundi bat salgai. 4 logela, egongela haundi bat, sukaldea, komuna eta terrazarekin. Prezio oso ona. 126.000 euro. ☎ 677 356461 edo ☎ 628 936991.

**UZTEGI.** Etxebizitza salgai 240.000 eurotan. Errentan hilabetean 600 euroren truke, erosteko aukerarekin. Lau solairu, 90 m<sup>2</sup> bakoitzean. Logela nagusiak, 16 m<sup>2</sup>ko bainugela du jacuzzi eta tximiniarekin. Beste hiru lo-

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

gela ere baditu tximiniarekin. 1000 litroko gasolio depositua, erradiadoreak. Teilatuaren egoera ona. 15 minutura 5000 m<sup>2</sup>ko herri-lurra, 400 m<sup>2</sup>ko lur eremua errentan hartzeko aukerarekin. ☎ 657 709722.

**BERA.** Pisuak salgai. Egongela, 3 logela, sukaldea, 2 bainugela (bat bainerarekin), trastelekua, igogailua, berogailua eta balkoiarekin. ☎ 681 017423.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan emateko

**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 2 logelako pisua errentan emateko. ☎ 646 774177.

**LESAKA.** Bittiri kalean 90 metro<sup>2</sup>ko pisua errentan ematen da. Sukalde haundia, egongela, 3 logela, komuna, trastelekua eta bi balkoi eder ditu. Bizitzeko prestatua

dago. ☎ 636 116021/  
☎ 639 855284.

**BERA.** Agerra auzoan, pisua errentan ematen da. Hiru logela, komuna, egongela, sukaldea eta bi balkoi, mobleztatua. Berogailua eta igogailuarekin. ☎ 659 963960.

**ELGORRIAGA.** Pisuak errentan ematen da. Mobleztatua eta berogailuarekin. 3 logela, sukaldea, komuna, egongela, balkoia eta trastelekua ditu. ☎ 629 734263.

**LESAKA.** Herriko plazan dagoen apartamentua errentan ematen da. Pertsona bat edo birentzako egokia. Nahi izanez gero amueblatua eta garajearekin emanen litzateke. ☎ 675 714360.

**ORONÓZ-MUGAIRI.** Pisu berria errentan ematen da. Mobleztatua: sala-sukaldea, logela, komuna, garajea eta tras-

teroa. 3 solairu, oso argitsua. Berogailua, igogailua, igerilekua, padeleko pista eta frontoia. Prezioa: 380 euro. ☎ 661 898970.

**LESAKA.** Albistur karrikan, 3. solairuko bizitza errentan. Igogailuarekin, eguzkitsua eta argitsua. Hiru logela, sala, terraza handia, sukaldea eta trasteroa bertan. Bi bainugelarekin bat osoa. Parkina dauka. 550 euro hila-betean. ☎ 669 704686.

**LESAKA.** 110 m<sup>2</sup>ko pisua errentan emateko. Etxe osoak kanpora ematen du eta bi balkoi eder ditu. 3 logela, egongela handia, sukaldea, komuna eta trasteleku handia. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎ 670 319380/  
☎ 607 769519.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartzeko

Leitza eta Goizuetako bi-

kote gazte batek **base-  
rri** edo **borda** bat hartuko luke errentan, bertan bizitzeko. ☎ 660 990 836.

**ETXEBIZITZAK**  
konpartitu

**BERA.** Pisuak konpartitzeko pertsona edo bikote bat behar da. Prezio ekonomikoa. ☎ 661 013168.

**LOKALAK**  
errentan emateko

**IGANTZI.** 45 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala errentan ematen da. ☎ 615 746622.

**LANA**  
eskariak

**BAZTAN.** Emakumezkoa interna bezala lan egiteko eskaintzen da. ☎ 650 768416.

**SUNBILLA.** Nazioarteko idazkaritza ikasketak dituen emakumea edozein lanetarako eskaintzen da. Ingelesa, frantsesa, italiar eta aleman apur bat dakizki. ☎ 669 671977.

Emakumea **edozein lanetan** merke xamar aritzeko eskaintzen da (sukalde laguntzailea, etxetan...) ☎ 948 580231.

**MOTORRAK**  
salgai

**Nissan Almera Tino 1.8** monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 65.000 km. Arras ongi zaindua. ☎ 628 572273.

**Yamaha 660 Grizzly quadsa** salgai. Egoera arras onean dago. ITVa 2014an pasatzeko. Ga-

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(Abenduaren 7tik 14ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 45 € (+2,00)

**Zerri gizena**  
1,315 € kiloak. (-0,027)

**Zerramak:**  
0,820€ Kg/bizirik. (-0,02)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**

**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,13 (-0,05)

**1.koa** 3,87 (-0,05)

**2.koa** 3,71 (-0,05)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,34 (+0,03)

**1.koa** 4,06 (+0,03)

**2.koa** 3,92 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruxak 150,00

idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**

urruxak 130,00

idixkoak 165,00

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 2,97/3,07

Zaldi-behorrak: 1,81/2,01

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 8,60/8,70

8-10 kilokoak: 6,60/7,00



solina. 2006 urtekoa. Prezioa: 4500 euro. ☎ 695 716894.



### ANIMALIAK salgai

**Zezena, 2 miga eta zezengai** salgai. Denak blonda akitania arrazakoak. Genetika onekoak. ☎ 606 586603.

**50 ardi latxa** muturgorri salgai. ☎ 647 511676.

### ZERBITZUAK denetarik

**Ingeles irakaslea** behar da, ahozkoa praktikatzeke. ☎ 652 725037.

**BAZTAN, MALERREKA** eta **BORTZIRIAK**. Egur loteak egin, materialetarako arbolak bota eta ateratzen dira, prezio oso

onean. ☎600 789034.1



### DENETARIK salerosketak

**SUNBILLA**. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ ☎699 461394.

Yamaha markako **zeharkako txirula** salgai. Oso gutxi erabilia eta oso egoera onean dago. ☎ 675 714360.

**Haritz amerikano** eta **gerezi landareak** salgai. Interesa dutenek, eguerdi edo arratsetan deitu dezatela. ☎ 948 450888.

**ORONOZ**. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



### ROSA BELZUNEGI PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu ordue

☎ 948 272011 (IRUÑA)

☎ 948 580975

Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

**LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA**

Urdi Lesaka  
ttiipi txartela  
LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

Pertsona 1: % 10eko **DESKONTUA Matrikulan**  
2 pertsona: 1.goak **Matrikula Doan**  
2.ak **Hilabete Bat Doan**  
(abuztuak 31 arte)

**DONEZTEBEKO AVIA GASOLINDEGIA**

Salida - Irteera

**DESKONTUAK CLUB AVIA**  
txartelarekin:

**%2** gasolio eta gasolinan  
**%5** dendako produktuetan

**Orain PELLETA saltzen dugu!!**  
(15 kiloko zakuak)

# TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

**EGIN ZAZU TTIPI-TTAPAREN ALDE PROIEKTU ZENBAKIA 50063**

Zuri ez zaizu ezer kostako guri 10€ laguntza emanen digute

**AUKERATU GURE PROIEKTUA**

**10€**

- Nafarroan erroldatutako 18 urtetik goitiko guztiek parte har dezakete
- Ez da beharrezkoa Nafarroako Kutxako edo La Caixako bezero izatea
- Nafarroako Kutxa Fundazioak 10 euro bideratuko ditu aukeratzen den proiekturako.
- Internetez egiten ahal da [www.cajanavarra.com](http://www.cajanavarra.com) webgunean sartuta edo, TTIPI-TTAParena aukeratzen baduzu, Lesakako bulegoan lagunduko dizugu eskaera egiten eta zalantzarik baldin baduzu deitu 948635458 telefonora

**ZUK AUKERATU, ZUK ERABAKI**  
**2013 CAJA NAVARRA**

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez



SAIOA eta ANDER ETXEGARAI MAIZEK abenduaren 26 eta 14an, 4 urte eta urtea bete dituzte. Auniz urtez familiaren partez eta muxu bana!



Berako JON IPARRAGIRRE IRIARTEK 13 urte bete ditu abenduaren 28an. Zorionak Berako familiaren partez.



GARAZI SANTEBANEK urteak bete ditu abenduaren 16an. Auniz urtez eta muxu handi bat Naroa, Xue, Iker eta Ekaitzen partez.



Legasako AMATXI TERESA, GARAI eta IRAITZEK urteak bete dituzte abenduaren. Auniz urtez familiaren partez. Prestatu atsaldoko goxual!



Arantzako OSKIZ eta SUHARRI MADARIAGA OTEGIK 7 urte bete dituzte abenduaren 29an. Beraian amatxok ere egun berean urteak bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu haundi bat Alazneren partetik.



Zorionak MIKEL! Berriro ere zure urtebetetze eguna alegatu da eta urrun zaude. Gure bihotzetan berriz, oso barruan. Familia guztiaren partez besarkada beroenak. Maite zaitugu. Euskal preso eta iheslariak etxera orain!



IRAIA SALABERRIA NARBARTE aranoarrak lau urte bete ditu abenduaren 30ean. Zorionak etxekoekin partez. *Pirixen onduan da gure poxpollña, etxeko sorgiña; lau urte itear da gure alaba fiña; ikasten ta jolasten saio pila egiña, lagun artian egoten ederki dakiña, nola azten dijuan da pozikan handiña.*



URKO PRIETO GOGORZAK urtea bete du abenduaren 27an. Zorionak Ezkurrako birramatxi, amatxi eta osaba izeben eta Beñaten partez. Paaa



Leitzako ALAIA TELLETXEA BULDAINEK abenduaren 25ean 2 urtetxo bete ditu. Urte askoz pinpirriña!!! eta muxutxo bat Xubanen partez.



Zorionak LOREA SALDIAS MAKAZAGA! Goizuetako gure printzesak 3 urte bete ditu abenduaren 31n. Muxu potolo bat, batez ere Izaroren partez.



LOREA SALDIAS MAKAZAGAK, Goizuetako iloba polittak 3 urte bete ditu abenduaren 31n. Zorionak Doneztebeko osaba eta izebaren partez.



Zorionak Goizuetako LOREA SALDIAS MAKAZAGARI Iturengo amatxi eta atautxiren partetik. Asteburuan ospa tuko dugu bizkotxo eder batekin!



Goizuetako ARITZ AIZKORBE HERRERAK abenduaren 29an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



Legasako KOLDOK 6 urte bete ditu abenduaren 31an. Zorionak Berako familiaren partez, eta ez ahaztu tarta jatera joango garela. Muxu!



Berako LEXURI PEREZ ALEJOSEK, gure printzesa tikiak, urtarriaren 8an hiru urte beteko ditu. Zorionak eta muxu auniz zure familiaren partetik.



Zorionak ESTITXU! familia osoaren partetik, baina bereziki Jare alabaren eta Orti, Lexuri, Elorri eta Aiert iloben partetik. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!!!



MAHIA MARTIN PORTUK 2 urte bete ditu. Zorionak familia osoaren eta bereziki Lesaka eta Leitzako lehen-gusu eta lehen-gusinen partetik. Muxuak!!!



AMATXI MARI JOXEK urteak bete ditu. Zorionak Orti, Lexuri, Elorri, Aiert, Mikel, Beñat eta Nahia biloben partetik. Muxuak!!!

hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) en

argazki soila 4 EURO

aldizkarian interneten

argazki bikoitza 8 EURO

## AURREZTU BULEGOKO materialean

**t tipi-ttapa**

Koskontako bidea 7, 1 | LESAKA | 948 635 458  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) | [www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com) | [kulturkari@ttipi.net](mailto:kulturkari@ttipi.net)

## TXARTELAK

Kartulina berezia 400gr. + 2 alde koloretan + BEZa barne

# 500 94€

bisita txartel

100 txartel 74€ 250 txartel 90€  
1000 txartel 116€

# ttipi-ttapa liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan  
CIEsek **Nafarroa Garaiko**  
**mendialdean**  
hartu duen  
111 udalerrien eremuan ere



<b>BESTE BATZUK</b> 8.000 irakurle	<b>EL PAIS</b> 1.000 irakurle	<b>MARCA</b> 3.000 irakurle	<b>BERRIA</b> 3.000 irakurle	<b>GARA</b> 8.000 irakurle	<b>D. NOTICIAS</b> 11.000 irakurle	<b>D. NAVARRA</b> 17.000 irakurle	<b>TTIPI-TTAPA</b> 26.000 irakurle
--	-------------------------------------	-----------------------------------	------------------------------------	----------------------------------	--	---	--

mila esker ttipi-ttapa irakurtzen duzuen guztiel!

#### SEXUAREN ARABERA

GIZONAK %44,60  
EMAKUMEAK %55,40

#### ADINAREN ARABERA

14-24 URTE %14,30  
25-34 URTE %19,50  
35-44 URTE %20,60  
45-54 URTE %17,30  
55-64 URTE %16,70  
+ 64 URTE %11,60

#### IKASKETA MAILAREN ARABERA

IKASKETARIK GABE %3,20  
LEHEN IKASKETAK %10,40  
LANBIDE HEZIKETA %32,80  
BATXILERGOA %21,90  
UNIBERTSITATEA %31,70



# ttipi txartelarekin beti irabazten da!

deskontuak + zozketak + aldizkaria musu truk

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

## 580. ALEKO IRABAZLEAK

\* **TTIPI SASKIA 1**  
MARIBI ETXEPARE ASTIGARRAGA  
LESAKA

\* **TTIPI SASKIA 2**  
ISIDORO GOIA FAGOAGA  
ARANTZA

## zozketak

**oninart™**



**KAMISETA BAT**  
Oninart denda  
[www.oninart.com](http://www.oninart.com)



**BATBIRULAU! eta HARIAZ BESTE**  
Erein Argitaletxea  
[www.erein.com](http://www.erein.com)

## deskontuak

**DATUCELAY**

ELIZONDO  
%10 bateria eta amortiguadoretan

**Kanetuz**  
LENTZERIA

DONEZTEBE | ELIZONDO  
%10, 30€tik gorako gastuan

**kukuka**  
HARRI GORRIPA OINAKA

DONEZTEBE %10eko deskontua haurrendako galtzerdi eta barruko arropetan

**EZ Zaldúa**  
ELIZONDO - SEVILLASTURAN

DONEZTEBE | ELIZONDO  
%10 produktuetan

**POSADA OITZ**  
OIZ

%10eko deskontua

**intzuri**  
OPTIKA

LESAKA  
%10 eguzkitako betaurrekoetan

DONOSTIA / SAN SEBASTIAN  
**AQUARIUM**



**AQUARIUM 2 SARRERA**  
Donostiako Aquarium-a  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



**PUPU ETA LORE DVDa**  
Katxiporreta  
[www.katxiporreta.com](http://www.katxiporreta.com)

**Lanku**



**GALTZAGORRIEI TO, INAXITO!**  
Liburu + DVDa  
Lanku  
[www.lanku.com](http://www.lanku.com)

**urtxintxa**  
25 URTE eskola



**PUNPALAPAN CD + DVD**  
Urtxintxa eskola  
[www.urtxintxa.org](http://www.urtxintxa.org)

**ttipi-ttapa**

Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA  
Tel. 948 635 458 Fax 948 635 457  
info@ttipi.net | [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)